

## LGTBI familiak: aniztasunaren adibide

Familia ereduak askotarikoak izan daitezkeela erakusten dute Kontxik, Inesek, Leok, Nikok eta Peruk (ezkerrean) eta Josebak, Iñakik eta Aritzek (eskuman). LGTBI familiak dira eurenak, eredu normatibotik kanpoko adibide bi. Garrantzitsuz jotzen dute LGTBI familiak ikusgai egitea, horrek gizartean erreferenteak sortzea dakarrelako. • 2-3



### Emakumeen sega sail lehiaketa, Elorrioko Gazeta auzoan

**Sega** • Almitza elkartearen eta Gazetako Lagunarte Kofradiaren artean antolaturiko txapelketa emakumeek bakarrik osaturiko lehenengoa da. • 26



### Oiz mendian aurkituriko cromlechak Bizkaian azaleratutako lehenengoak dira

**Mallabia/ Berriz**-Oizen aurkituriko historiaurreko ehorzketa guneetan hilobi-monumentu nobedosoak topatu dituzte: Pirinioetako cromlechak. Bizkaian lehenengoz aurkitu dira horrelako egiturak. • 6

### Haizetara lehiaketaren XV. edizioa hasiko da gaur; hamar banda lehiatuko dira bertan

**Zornotza** • Ekainaren 24an, 25ean eta 26an egingo dute Haizetara nazioarteko lehiaketa. Mundu osoko hamar bandak parte hartuko dute lehiaketan 10.000 euroko saria eramateko asmoz. • 25



## “Durangon badira gurearen moduko familiak, nahiz eta bistakoa den gutxiengoa garela”

Iñaki Guridik, Joseba Azkarragak eta Aritzek osaturiko familiak sendia mota asko egon daitekeela erakusten du

### LGTBI FAMILIAK • EKAITZ HERRERA

**Iñaki Guridi Ormazabalak (Legazpi, 1979) eta Joseba Azkarraga Etxagibealek (Abadiño, 1972) hile bi eta erdi zituela adoptatu zuten Aritz semea. Durangon bizi dira.**

### Noiz pasatu zineten bi izatetik hiru izatera?

**Iñaki Guridi:** Aritz 2017ko udazkenean etorri zen gurera, hile bi eta erdi zituela. Bizkaiko Foru Aldundiaren adopzio programa baten bitartez etorri zen. Hori baino lehenago, lau bat urteko prozesu bat egin genuen.

**Joseba Azkarraga:** Bai, ia lau urte egin genituen adopzio prozesuagaz. Ikastaro bat egin genuen, umearen hazkuntzaren bueltako hainbat kontu lantzeko: atxikimenduak, adopzio prozesuetan gertatu daitezkeen gorabeherak eta halakoak aztertu genituen. Zelanbait esateko, guraso karnetaren antzeko zeozer atera genuela esan daiteke. Gero, behin ikastaroa amaituta, telefono deia zain geratu ginen.

**I.G.:** Behin ikastaroa eginda, umea jasotzeko txostena zabaltzen da. Hau da, dauden familia beharri-zanen arabera, gizarte zerbitzuak egokitasun azterketak egiten joaten dira. Umea zein baldintzatan biziko litzatekeen aztertzen dute. Gure kasuan, egokitasun azterketa hori egiten hasi eta hiru hilabetera etorri zen telefono deia. Bariku batean deitu ziguten azterketa gainditu genuela esateko, eta hurrengo martitzenean umea izango genuela

esateko. Prozesu horretan oso argi geratu zitzaidan ez dagoela guraso izateko eskubiderik. Umeek gurasoak izateko eskubidea da dagoena. **Badago desberdintasunik LGTBI familia baten eta familia normatibo baten artean?**

**I.G.:** Ezetz esango nuke. Nik behintzat ez dut desberdinak bagina lez tratatu gaituzten sentipenik. Adopzio prozesuetako patroia, gehien-goa, bestea da, familia heterosexuala. Horrenbestez, administrazioan lan egiten dutenak ohituago daude tramite horiek egitera. Gurearen moduko kasuak gutxiago direnez, galdetu egin behar izaten dute, kontsultaren bat egin. Baina ez zait iruditzen kontrako jarrera deliberatu bat dagoenik.

**Gurearen moduko hautua egin duten beste familia batzuk lagunak ditugu; horrek umeei erakusten die ez direla 'rara avis' bat**

**J.A.:** Gizartea kontzeptu anitz eta konplexu modura aztertuta, segun eta zein azpikulturatan mugitzen zaren, izan ditzakezu erantzun lagunkoia goak zein fobikoagoak. Durango batean, gure esperientziari dagokionez behintzat, ez da aparteko zailtasunik egon.

**Durango aipatu duzue. Zelakoa da LGTBI familiek Durangon duten ikusgaitasuna?**



**I.G.:** Ume bat daukazun momentutik, kalean partekatzen dituzun espazioak beste edozein familiak partekatzen dituenak dira. Eta horrek automatikoki dakar ikusgaitasun bat. Batzuetan, bakarrik zaude umeagaz. Beste batzuetan, bikotekideagaz eta umeagaz. Naturalki ikusten den kontua da.

**J.A.:** Durangon badira gurearen moduko familiak, nahiz eta bistakoa den gutxiengoa garela. Dena dela, Aritzi ez diogu familia hau bakarrik eskaini. Beste hainbatekin partekatzen dugun zeozer ere bada. Gurearen moduko hautua egin duten beste familia batzuk lagunak ditugu, masa kritiko txi-

ki-txiki bat sortzen joan gara, zelanbait esateko, eta horrek umeei erakusten die ez direla *rara avis* bat, haien familiak ez direla bakarrak.

**Izan ere, Aritzek honako hau esango du eskolan: "Nik aita bi ditut".**

**I.G.:** Bai, halantxik esaten du. Txikitatik bizi izan du, naturaltasunez. Beharbada baten batek galdetuko zion ea ez ote duen aita-amarik. Baina ez zait iruditzen zailtasun bat denik berarentzat.

**J.A.:** Ikastolako ama batek behin esan zidana gogoratzen dut. Bere alabak galdetu zion ea nor zen Aritzen bigarren gurasoa. Bata aita bazen, ea nor ote zen bestea,

osabaren bat edo. Amak berak azaldu zion alabari ezetz, Aritzek aita bi zituela. Hori gertatu eta gero, ama horrek esan zidan denon artean errelato kolektibo bat eraiki behar genukeela. Bakoitzak bere umeari kontakizun propioa eraiki barik, errelato kolektibo bat denon artean zelan eraiki genezakeen proposatu zidan. Oraindino ez dugu egin, baina oso proposamen ederra iruditu zitzaidan. Ikastolako irakasleek ere esan izan digute haienez erroka bat dela aita-ama binarismotik kanpoko aukerak ahozko jardueran, ipuinetan zein halakoetan lantzea. Mugak badaude oraindino.



Sehaska elkarteak Gasteizen 2014an egindako topaketa bat.

## Sehaska elkarteak hamarkada bat baino gehiago darama LGTBI familien ikusgaitasuna lantzen

### ELKARTEAK • EKAITZ HERRERA

Euskal Herrian badago LGTBI familiek osaturiko elkarte bat. Sehaska du izena eta 45 bat bazkide ditu. Elkarteak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan lan egiten du, baina Nafarroako zein Kantabriako familiak ere hartzen ditu, leku horietan ez dago halakorik eta. Esti Egidazu Ugaldea elorriarra da elkartearen presidentea: "Hezkuntza arloan eragiten dugu gehienbat. Gizartea zelan aldatu den eta indarra non egin beharko litzatekeen planteatzen dugu, denok berdintasun batera joan gaitez. Gure helbururik politena elkarte desagertzea litzateke, gurearen moduko elkarte bat izateko beharriaz ez egotea", azaldu du. Sehaska 2011n sortu zen, Bilboko Aldarte elkar-

tearen eskutik. Gurasoei begirako egitasmoak, asteburu-pasak zein berbaldiak antolatzen dituzte, eta azpimarra berezia egiten dute umeengan. "Topaketa ludikoak egiten ditugu, inportantea delako umeek euren artean hartu-emanak izatea. Segun eta non bizi zaren, baliteke zure seme-alabek zurearen moduko beste familiarik ez ezagutzea. 'Nik baino ez daukat honelako familia?', galdetu diezaioke bere buruari. Umeak ikusi behar du berearen moduko familiarik daudela, familia eredu anitzak daudela", azaldu du Egidazuk.

Hain zuzen ere, LGTBI erreferenteak lantzerantz deitu du Egidazuk, "eskolara etxean ikasitakoa daramagulako". Alde horretatik, honako anekdota hau partekatu

## “LGTBI familien ikusgaitasuna lantzea urgentea da, umeek erreferenteak izan ditzaten”

Familia normatiboaren aurrean beste aukera batzuk ere badaudela erakusten du Durangoko familia honek

**LGTBI FAMILIAK** • EKAITZ HERRERA

**Kontxi Ramos Talladak (Zaragoza, 1976) eta Ines Etxegibel Alberdik (Durango, 1974) hiru seme dituzte. Bederatzi urteko Leo eta sei urteko Niko eta Peru. Durangon bizi dira.**

**Zelan erabaki zenuten familia sortzea?**

**Kontxi Ramos:** Nik txikitatik argi nuen ama izango nintzena, eta Inesek ere argi zuen. Elkarregaz genbiltzala gaiak irten zuen.

**Ines Etxegibel:** Bai, oso erraza izan zen dena. Denbora bat generaman elkarregaz, eta puntu batetik aurrera familia sortzea erabaki genuen.

**K.R.:** Intseminazio artifizialaren bidea hartu genuen. Eta, egia esan, zorte handia izan genuen. Izan ere, oso tratamendu gogorrak dira eta denbora epeak ere oso markatuta daude. Etengabe-ko kontrola duzu. Baina iruditzen zait zortedunak izan ginela. Hirurak erraz jaio ziren.

**Zelan erabaki zenuten biotako zein ernalduko zen?**

**I.E.:** Nik saiakera bat egin nuen lehenengo. Umea izan gura nuen, nahiz eta ez diodan lotura biologikoaren beharizan horri garrantzirik ematen.

**K.R.:** Epe bat utzi genuen, Inesek atsedean hartzeko. Eta, azkenean, hiru umeak neuk izan nituen. Hori ere oso erraz erabaki genuen.

**Familia ez arautu bat izateak ekarri dizue zailtasunik?**

**I.E.:** Gu José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako presidente zela ezkondu ginen, hain zuzen ere sexu berekoen arteko ezkontzak onartu zirenean. Mariano Rajoy boterera ailegatuko zen beldurrez, ezkontzea erabaki genuen, legea indargabetuko zuelakoan. Kontua da bikote heterosexualek ez dutela zertan ezkondu umea izateko. Bikote homosexualek, ostera, bai. Ezkondata egotea ezinbesteko baldintza da umea guraso biena izan dadin. Berdin intseminazio artifizialaren kasuan zein adopzioaren kasuan. Zer gertatzen da bestela? Kontxik ume bat badu nigaz ezkondata egon barik, nik umea adopzioan hartu beharko nuke. Horrelakoak asko gertatzen dira. Hor badira zailtasunak, baina kalean, eskolan, ez dugu ezelako arazorik izan.

**Zelako garrantzia du LGTBI familiak ikusgai egoteak?**

**I.E.:** Besteek hau ezagutzen ez badute, gu garenari oihartzunik ematen ez bazaio, hor beldurrak eta bazterkeriak sortu daitezke. Horma txikiak, handiak botatzen bagoaz egoera denontzat izango da arrunta.

**K.R.:** Nik uste lagungarria dela. Umeak ikusi behar du familiak anitzak direla. LGTBI familiak, familia monoparentalak, guraso bananduak daudela. Hori guzti hori oso ondo dago umea martziano sentitu ez dadin. Ez dezan uste bere kasua bakarra dela.

**I.E.:** Ikusgaitasuna urgentziaz landu beharreko kontua da. Erre-



“**Gu garenari oihartzunik ematen ez bazaio, horrek aurreiritziak eta bazterkeriak ekarri ditzake**”

ferentziak sortzeak eragin inportantea du umeengan.

**Umeek ama bi dituztela esaten dute eskolan.**

**K.R.:** Bai, eta lagun batzuek etengabe galdetzen dute ea Peruk ama bi dituen. Galderak egiten

dituzte, eta guk azaltzen diegu maitemindu egin ginela eta umeak izatea erabaki genuela. Umeek naturaltasun handiz bizi dute dena.

**Familia osatzeak zer eman dizue?**

**I.E.:** Poza, zoriona. Baina horrek ez du kentzen tarteka gogorra ere badela. Adin txikiko hiru ume izatea, bakoitza bere izaeragaz, bere beharizanekin. Lanak ematen ditu dena kudeatzeko. **K.R.:** Niretzat etenik ez duen ikasketa prozesua da. Eta azkenaldian ikusten dudana da inperfektua izaten ikasten ari naizela.

**Ospatuko duzue LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna?**

**I.E.:** Lehen, Madrilgo edo Bartzelonako mobilizazioetara joaten ginen tarteka. Baina, gero, adin bat duzula, gauzak aldatu egiten dira eta azkenaldian ez dugu horretarako joerarik. **K.R.:** Umeei, adibidez, ekainaren 28a heltzen den aldiro egun hori zer den azaltzen diegu. Beharbada oraindino ez diote garrantzirik emango, baina hemendik urte batzuetara bai, gizartean dauden beharizanak ikusiko dituzte.

du: “Gure seme-alabei gertatu izan zaie eskolan ama bi dituztela esatea, eta lagunak batek hori ez dela posible erantzutea. Lagunak ez zioen hori modu diskriminatorio batean; kontua da ez zuela errealitate hori ezagutzen. Baina, jakina, seme-alaben nortasunaren arabera, egoera deserosoak sortu daitezke. Bullyinga sentitu daiteke. Eta, horrenbestez, horrelakoak landu behar ditugu”, dio. “Zer egin behar da gizartean familia aniztasuna lantzen joateko? Horixe da abiapuntua. Gizartea ez dago aniztasun horretan garatuta. Familia oso estereotipatuta dago. Gure komunitatea ere bai”, gaineratu du Egidazuk.

## Deialdiak: Manifestazioa eta Yogurinha Borovaren emanaldia Abadiñon; irakurraldi feminista Durangon



Yogurinha Borova.

**DEIALDIAK** • EKAITZ HERRERA

LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunagaz bat eginda, Durangaldeko eragile feministek hainbat ekitaldi antolatu dute ekainaren 28rako. Abadiñoko Izpilikuak talde feministak manifestazioa egingo du Traña-Matiena auzoko kaleetan. Mobilizazioak 19:00etan irtengo du, Trañabarren kaleko Laboral Kutxaren paretik. Egunotan, talde feminista herriko gainerako eragileen atxikimendua batzen dabil, manifestazioa ahalik eta

anitzena izan dadin. Bestalde, ekainaren 30ean, Yogurinha Borovak emanaldia egingo du Taberna Zarrako aparkalekuan. Kontzertutxoa 21:00etan hasiko da.

Bestalde, Durangoko Bilgune Feministak irakurraldi feminista egingo du ekainaren 28an. Irakurraldi gainerako herritarren parte hartzeagaz lagunduta egingo dute, modu zabalean. Ekitaldia Intxaurre aurrean izango da, 20:00etan. Ondoren, DJ Ainhoa egongo da musika ipintzen.

# Durangaldeko herritarrek Auritz, Orreaga eta Baztan aldeko tontorrek argituko dituzte Pirinioetako Bidean

Gure Esku eta Kataluniako ANC eragileek Pirinioetako Bidea antolatu dute uztailearen 2rako. Euskaldunek eta katalanek 300 mendi tontor argizatuko dituzte autodeterminazio eskubidearen alde, Higer lurmuturretik Creusera

## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Gure Esku, Assemble Nacional Catalana eta Federació d'Entitats Excursionistes de Catalunya erronka erraldoi bat prestatzen dabilta elkarlanean. Autodeterminazio eskubidearen alde, Pirinioetako 300 mendi tontor argitzera deitu dituzte herritarrek. Higer lurmuturretik (Hondarribia, Gipuzkoa) hasita, Creus lurmuturrerainoko (Gironako kostaldea) mendiak argizatuko dituzte. Euskaldunek 115 argituko dituzte, Higerretik Benasquerainokoak (Huesca, Aragoi). Erronka uztailearen 2an izango da. Egitasmoaren bultzatzaileek diotenez, helburua "katalanek eta euskal herritarrek etorkizuna libreki, burujabe", erabakitzeko duten eskubidea aldarrikatzea izango da. Durangoko Udalak, ekimenari ekarpena eginez, farola bat erosi du Lindus mendia argiztatzeko.

## Izen-ematea zabalik


Erronkan izena eman gura duten herritarrek zabalik dute epea apuntatzeko. Horretarako, [izenaeman.gu-](http://izenaeman.gu-)

[reesku.eus](http://reesku.eus) atarira jo eta bertako inprimakia bete behar da, Bizkaiari dagokion atala sakatuta eta norberari dagokion udalerrira aukeratuta. Erabiltzaileak bertan topatuko ditu uztailearen 2an jarraitu beharreko

argibideak. Gainerakoan, [viapirenenca.cat](http://viapirenenca.cat) atarian informazio gehiago topatu daiteke.

Durangaldeko herritarrek esleituta dituzte tontorrek. Herri bakoitzak berea du. Gehienak

Nafarroako Auritz eta Orreaga herrien inguruko mendiak dira, zelaidunak, haitzik edo aparteko zailtasunik bakoak. Otxandiarrak Baztango Argintzu mendira joatera deituta daude.



2019ko urrian, Durangaldeko herritarrek Anbotoko mendilerroa argiztatu zuten Kataluniari elkartasuna adierazteko.

## Durangaldeko herritarren tontorrek, herrika

**Abadiño** - Mendiandi (1.213 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Atxondo** - Mendiandi (1.213 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Berriz** - Mendixuri (1.194 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Durango** - Lindus (1.218 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Elorrio** - Mendixuri (1.194 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Iurreta** - Lindus (1.218 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Izurtza** - Mendiandi (1.213 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Mallabia** - Mendixuri (1.194 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Garai** - Lindus (1.218 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Mañaria** - Mendiandi (1.213 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Otxandio** - Argintzu (1.208 metro. Baztan, Nafarroa)  
**Zaldibar** - Mendixuri (1.194 metro. Auritz, Nafarroa)  
**Zornotza** - Lindus (1.218 metro. Auritz, Nafarroa)

# Durangkok eta Zornotzak Tour Egunak hartuko dituzte 2023ko Frantziako Tourraren aurrekari modura

## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

2023ko Frantziako Tourreko lehenengo hiru etapak Euskal Herrian jokatu dira oso-osorik, eta Durangaldeak presentzia nabarmena izango du hirugarrenean. Uztailearen 3an, Zornotzan hasi eta Ipar Euskal Herrian amaituko da lasterketa, N-634 errepidetik Iurreta, Abadiño eta Berriz igaro ostean Trabakua igota. Horren guztiaren aurrerapen lez, Bizkaiko Foru Aldundiak Tour Egunak antolatu

ditu. Herrialdeko 18 herritan egingo dituzte; tartean, Zornotzan eta Durangon. Lehenengoa aurtengo urriaren 23an egingo dute. Bigarrena datorren urteko otsailaren 12an.

## Bizikleta, mugikortasunerako

Aldundiak aurreratu duenez, Tour Egunek lasterketaren historia eta honek Bizkaian egingo duen ibilbidea ezagutaraziko dituzte. Horrez gainera, "egitasmoen helburu

nagusia txirrindularitza sustatzea izango da, bai kirol arloan eta baita mugikortasun arloan ere", esan dute. Besteak beste, bizikleta eguneroko joan-etorrietarako garraibide lez erabiltzea butzatuko dute. Horrez gainera, bide segurtasunari buruzko gela, bizikletaren mantenturako lantegi gunea, bizikletak aukeratzeko eta probatzeko gunea eta mugikortasun jasagarria sustatzen duten tokiko klubentzako gunea egongo dira.



Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunak Tour Egunen aurkezpenean.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2022ko ekainaren 24a  
20. urtea - 898. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Pauso bat aurrera eman dute Berrizko belodromoa estaltzeko bidean

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Mankomunitateak 351.000 euroko diru poltsa onartu du belodromoa estaliko duen proiektua idazteko. Aterpeak azpiegituraren erabilera erraztuko du, bertan entrenatzen diren txirrindulariak hainbat bider kexatu dira-eta eguraldiak laguntzen ez duen egunetan sortzen diren egoerengaitik. Horrez gainera, bertan BTT zentro bat zabaltzeko diru partida bat ere gehitu diote proiektuari. Josune Escota jeltzaleak adierazi du gobernu taldea beste erakundeekin negoziatzen dabilela, etorkizunean egin beharreko "obra guztia ez dezan Mankomunitateak bere gain hartu". EAJk eta Abadiñoko Independienteek diru partidaren alde egin dute; EH Bildu eta Herriaren Eskubidea abstenitu egin dira. Ainaro Otxotorena ordezkari subiranistak esan du belodromoaren obrak "zalantza" sortzen diola koalizioari, "kostu handia" delakoan eta BTT zentroa "premiatzkoa ez" delakoan.

# Gizonezko bat atxilotu dute langile bati sexu eraso egin eta diru truke haurdun geratzeko eskatzea leporatuta

Durangon eta Portugaleten negozioak dituen gizonezkoagaz batera, Espainiako poliziak haren emaztea ere atxilotu du langilearen eskubideak urratzea leporatuta. Gizonak 20.000 euro ematea proposatu zion biktimari, ume bat izatearen truke

**DURANGO • J.G. / E.H.**

Berri agentziek azaldu dutenez, ikerketa ekainaren hasieran ipini zen martxan. Emakume batek polizia-etxean salatu zuen urte bi zeramatzala lanean kontraturik barik, Durangoko negozio batean. Gaineratu zuenez, beste langile batzuek ere kontraturik barik lan egin zuten bertan. Biktimak poliziari azaldu zionez, enpresako jabearen etxean lo egiten zuen eta gau horietariko batzuetan gizonak sexu erasoak egin zizkiola salatu zuen. Gainera, beragaz ume bat izatearen truke gizonak 20.000 euro emango zizkiola proposatu ziola salatu zuen. Emakumeak salatuko zuen beldurrez, gizonak dirua eskaini ziola gaineratu zuen biktimak, 5.000 euro hain zuzen ere.

**Itaiaren kontzentrazioa**

Durangaldeko Itaiak elkarretaratzea egin zuen astelehenean, gertaturikoa salatzen. "Kasu honek berriro ere agerian

uzten ditu emakume langileon bizitzak ezaugarritzen dituen egiturazko pobrezia eta indarkeria", azaldu zuten Ezkurdin egindako mobilizazioan. Gaineratu zuten, "indarkeria matxistari eta

orokorrean genero problematikari erantzutea urgentziatzeko auzia da".

**DAFAren eta LABen deialdia**

Bestalde, Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak eta LAB

sindikatuak deituta, elkarretaratzea egingo dute gaur Durangon. 19:00etan egingo dute kontzentrazioa, Andre Marian, 'Indarkeria matxistak baditu milaka aurpegi' lelopean.



Durangaldeko Itaiak kontzentrazioa egin zuen, astelehenean, gertaturikoa salatzen.

## Aramotz berritzeko proiektuak 3,6 milioi euro jasoko ditu Europako funtsetatik

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Eusko Jaurlaritzaren bitartekari-tzari eskerrak, Durangoko Udalak 3.665.000 euroko diru atala jasoko du Europar Batasuneko 'Next Generation' diru funtsetatik. Udalak Aramotz Berritu proiekturako erabiliko du diru kopuru hori, auzoko urbanizazioa eta 128 etxebizitzaren irisgarritasuna zein efizientzia energetikoa hobetzeko.

Aramotz Berritu proiektuak 9.464.555 euroko aurrekontu glo-

bala du. Proiektuan, auzotarrek, Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza Sailak esku hartzen dute. Hiru aldeak Durangoko udaletxean batu ziren atzo, diru laguntzen xehetasunak ezagutzeko.

Aramotz Berritu proiektuak honako diru ekarpen hauek izango ditu: alde batetik, Durangoko Udalak inbertsio osoaren %72 kudeatuko du, Jaurlaritzatik zein Europatik jasoriko 6.819.186 euro kudeatuta.

Kopuru horretatik 1.674.142 euro Naturan Oinarritutako Irtenbideetan erabiliko dituzte. Hau da, auzoan urbanizazio lanak egin eta elementu naturalak ipintzeko. Bestalde, 4.161.616 euro auzoko eraikinen efizientzia energetikoa eta irisgarritasuna hobetzeko erabiliko dituzte. Besteak beste, igogailuak ipiniko dituzte etxe atari bakoitzean. Beste 410.000 euro auzo bulegoa kudeatzeko erabiliko dituzte.



Egunean, auzokideek batzarra egin zuten udal arduradunekin.

## Paella lehiaketa, igel jokoa eta dantzariak Momoitioko San Juanetako egitarauan

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Garaitarrek San Juan jaiak ospatzen jarraituko dute asteburuan. San Juan bezperako suak eta San Juan eguneko meza eta luntxa atzean utzita, domekan ipiniko dute indarra. Momoitioko basilizaren eremuan hasiko dituzte ekintzak, 12:00etan. Ordu horretan meza izango dute ermitan, eta amaitutakoan dantzarien emanaldia eta igel jokoa egingo

dira. Egunari giro herrikoiaz emango diote segida, jan-edanagaz. Izan ere, 14:30ean oilasko paella lehiaketari emango diote hasiera. Honako sari hauek egongo dira: paella ontzia eta 80 euro irabazlearentzat, 60 euro bigarrenarentzat eta 40 euro hirugarrenarentzat. Udalak eta jaiak antolatzen dituzten batzordeak elkarrekin antolatuko dituzte San Juan jaiak.



Momoitioko San Juan basilizaren eremuan egingo dituzte domekako ekintza guztiak.



Probazelaiburu 1. irudiaren goiko aldean K.a. 2.000-1.500 urte arteko ehorzketa gunea; beheko aldean, borobila osatuz, K.a 540-390 urte inguruko cromlecha. Eskuman, Juan Carlos Lopez.

## Oiz mendian Bizkaiko lehenengo cromlechak aurkitu dituzte, Burdin Aroko hilobi-monumentuak

Pirinioetako cromlech edo harrespilak hain mendebaldera aurkitzen dituzten lehenengo aldia da

**BERRIZ / MALLABIA • J.D.**

Oiz mendiaren ekialdean, Berrizko eta Mallabiko lurretan, AGIRI Arkeologia Elkartek egindako indusketak historiaurreko hiru ehorzketa gunea azalatu ditu udalerrri bien aginduz. Arrastorik zaharrenak Kristo aurreko 4.000-5.000 urte ingurukoak dira eta berrienak K.a. 540-390 urte buelta-koak. Hiru gunek 300 metro baino gutxiagora daude bata bestetik, eta hirurek batera, 4.000 urteko garapena barnebiltzen dutelarik, Bizkaiko oraintsuko historiaurreko hileta-sekuentziarik luzeenetarikoak osatzen dute. Baina multzo megalitiko horren barruan, egitura batzuk besteak baino nobedosoagoak dira, aurretik hain mendebaldera

inoiz aurkitu bakoak zirelako. Hain zuzen ere, hilobi-monumenturik berrienak dira nobedadeak, Pirinioetako Cromlech edo Pirinioetako Harrespil izenekoak. Orain arte Bizkaian aurretik aurkitu bako egiturak dira.

K.a. lehen milurtekoan, Azken Brontze Arotik Burdi Arorako sasoiaren, gorpuak errausteko hileta-erritu bat sortu eta garatu zen Europa erdialdean eta Mediterraneo inguruko lurretan: gorpuak erraustea. Denboragaz, Pirinioen erdialdean eta mendebaldean hedatu zen. Eremu horretan bizi zen giza taldeak, aurreko tradizioetan oinarrituta, ezaugarri propioak gehitu zizkion errausketaren erritualari: lurrean bertikalean sartu-

riko hainbat harrigaz zirkulu bat egiten zuten, eta han barruan ipintzen zituzten hildakoen errautsak. Hilobi-monumentu horri Pirinioetako Cromlecha edo Pirinioetako Harrespila deitzen zaio. Bada, orain hamarkada batera arte, Gipuzkoako Oria eta Leizaran ibaiek markatzen zuten mendebaldeko muga, han amaitzen ziren tankera horretako arrastoak, harik eta 2011n Aralarren hiru Pirinioetako Cromlech aurkitu zituzten arte. Orain, Oizen, ezaugarri arkeologiko berdineko beste bi azalatu dira, Bizkaiko lehenengoak, eta orain hantxe dago mendebaldeko muga.

Monumentu horiek giza talde berri baten hedapenaren testigantza dira ala dagoeneko bertan

bizi zirenek kanpotik harturiko errituak dira? "Ez dago esaterik. Hori jakiteko, jatorrizko nukleoko [Pirinio erdialde-mendebaldea] norbaiten eta hemengo norbaiten DNAk alderatu beharko genituzke, eta, oraingoz, ez da horrelakorik lortu. Oizen, esaterako, ez da hezurrik aurkitu. Erretako oso hezur gutxi aurkitu izan dira eta, gainera, euretatik DNA ateratzea zaila da", adierazi du Juan Carlos Lopez Quintanak, Oizko indusketak gidatu dituen AGIRI elkarteko arkeologoak.

Seguru esan daitekeena da Oizen aurkitu diren cromlech edo harrespilak K.a. 540-390 urteen artekoak direna. Izan ere, monumentuen barruan aurkituriko ikatza sasoi hartakoa dela diote

datazio-azterketek. "Harrespilen sasoiagaz bete-betea kointziditzen dute emaitzek. Egur-ikatz askotan aurkitzen da, oso ondo kontserbatzen delako milaka urtez. Litekeena da ikatz hori errausketena barik hilobi ondoan egindako errituale-na izatea", dio Lopezek.

Indusketa hauek Pirinioetako Cromlech hilobi-monumentuen mendebaldeko muga Oizera mugitu duten moduan, baliteke etorkizuneko ikerketa berriek muga are mendebalderago eramatea. Lopezek aurreratu du etorkizunearan indusketa berriak egingo dituztela; tartean, Bizkaiko beste toki batean.

**Aurkikuntzak ezagutzera emateko, joan zen domekan bisita gidatuak egin zituzten Oizen**

### Oizko hiru gunek

Joan zen domekan, bisita gidatuak egin zituzten Oizen, Berriztik eta Mallabitik joanda. Ehun bat lagun batu zen. Han, AGIRI elkarteko arkeologoek historiaurreko hiru ehorzketa guneen gaineko azalpenak eman zituzten. Probazelaiburu 1 izeneko gunean egitura bi agertu dira. Bata K.a. 2.000-1.500 ingurukoak da. Han aurkituriko zeramika zatien tipologiak eta gerora egindako analitikek horixe erakusten dute. Bestea hamaika harri-testigugaz osaturiko Pirinioetako Cromlecha da, K.a. 540-390 urtera artekoa. Hipotesia da beste egiturako harriak erabili zituztela harrespila egiteko, baina ez dago seguru esaterik.


Oizen aurkituriko bigarren cromlecha Iturzuriganan izeneko gunean dago eta aurrekoa baino zabalagoa da. Hemen ere egitura bi bereiztu daitezke, baina, kasu honetan, elkarren ondoan barik bata bestearen gainean daude. Trikuharri zaharrago bateko harriak harrespila egiteko berrerabili zituztela uste dute arkeologoek. Hilobi-monumentua sasoi berrietara ekarri zuten.

Probazelaiburu II izeneko hirugarren gunean dago hilobirik zaharrena. K.a. 4.000-5.000 urte inguruko tumulu bat da. Tumuluak hilobi baten gainean harriz eta lurrez eraikitako hilobi-egiturak dira.



Ezkerrean: Probazelaiburu II-ko tumuluak. Erdian: Iturzuriganan, bigarren cromlecha aurkitu duten gunea. Eskuman: bisita gidatuko parte hartzaileak. Berriztik eta Mallabitik oinez joan ziren Oizera.

# Osasun gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Odontologia**  
RPS: 26/22

**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazio hortz klinika Durango

**IREKIERA  
ESKAITZA**  
(2022ko urtailaren 25a arte)

Lehen bisita:  
Erradiografia, diagnostikoa eta hortzak  
garbitzea doan

9:44 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara  
adituak esterilizazioan.  
Orain, inoiz baino gehiago,  
den-dena prestatu  
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -  
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194  
454uecdental@gmail.com

 **Optometria**  
PSE: 162/13

**Naia  
Zabala  
Azumendi**  
11587 kol. zk.



**keinu**

- Optometriari teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio  
neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
[www.keinuoportometriazentroa.com](http://www.keinuoportometriazentroa.com)

 **Podologia**  
PSE: 148/13

**PAUSOZ  
PAUSO**  
Podologia  
klinika

**Goiatz Murua**  
kol. zbk. 147  
**Ainhoa Elorza**  
kol. zbk. 238  
**Nerea Rodriguez**  
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

**Telefona: 946203630**  
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D**  
DURANGO

[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 112/13



**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.**  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**  
PSE: 16/09



**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA  
[www.medicinaesteticadurango.com](http://www.medicinaesteticadurango.com)

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:  
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin  
betiko kentzeko laserra..  
Adinaren kontrako tratamenduak:  
orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO**  
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea**  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

# Trañapadura industrialdera sartzeko zubi berria eraikitzen hasi dira

Lanen aurrekontua 1,7 milioi eurokoa izango da; 1,2 milioi Abadiño Udalak ordainduko ditu eta gainerako 500.000 euroak Uraren Euskal Agentziak ordainduko ditu

## ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uraren Euskal Agentzia N-634 errepidetik Trañapadura industrialdera sartzeko zubi berria eraikitzen hasi da. Zubi berriak 20,20 metro izango ditu eta bateragarria izango da Sarria erreka egokitze erabiliko den ibilgu zabalagaz. Zubiari esker, N-634 errepidetik zuzeneko

sarbidea egongo da industrialdera. "Erakundeen arteko lankidetzari eskerrak, Abadiñoarentzat funtsezkoa den eta denbora askoan geldirik egon den proiektua aktibatua ahal izan da. Obra honen bitartez, uholdeei aurre egiteko segurtasuna indartuko dugu, eta, gainera, zubi berriak eta inguruko bideek

Traña-Matienako hirigunetik trafikiko astuna ateratzeko aukera emango digute", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak.

Lanen aurrekontua 1,7 milioi eurokoa izango da. 1,2 milioi Abadiño Udalak ordainduko du eta gainerako 500.000 euroak URA agentziak.



Trañapaduran zubi berria eraikitzen ari diren lekua.

## ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko igerilekuak gaurtik, ekainak 24, irailaren 4ra bitartean egongo dira zabalik. Instalazioak astelehenetik domekara egongo dira zabalik, 11:00etatik 21:00etara bitartean. Atxondoko Udaletik jakinarazi dute aurten ez dela hitzordua aurrez hartu behar.

**Instalazioak astelehenetik domekara egongo dira zabalik, 11:00etatik 21:00etara bitartean**

## Udako jarduerak igerilekuetan

Atxondoko igerilekuetan aurtengo udarako hainbat jarduerak antolatu dituztela ere jakinarazi dute udaletik; ur jarduerak tarteko. Uztailearen 8an, 11:00etatik 14:00etara, urretako puzgarrien festa egongo da eta uztailearen 12an, 26an eta abuztuaren 23an haurrentzako tailerrak egongo dira. Abuztuaren 11n, 11:00etatik 14:00etara, urretako puzgarrien festa egongo da berriro, eta irailaren 4an uda amaierako festa egingo dute, 17:00etatik 20:00etara.

# Gaur zabalduko dituzte Atxondoko igerilekuak; udan hainbat ekintza egongo da bertan

Igerilekuak gaurtik irailaren 4ra egongo dira zabalik



Atxondoko igerilekuak.

# Martxan da 2023ko aurrekontu parte hartzaileetarako prozesua

Elorriko Udalak 50.000 euro ipiniko ditu partida horretarako

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atzo goizean egindako prentsaurrekoan, Idoia Buruaga alkateak eta Maria Herrero alkateordeak iragarri zuten 2023ko aurrekontu parte hartzaileetarako prozesua martxan ipiniko dela. 50.000 euro ipiniko dituzte partida horretarako, eta prozesua fase bitan gauzatuko da. Lehenengo fasean, ekainaren 27tik uztailearen 10era, herritarrek euren proposamenak egin ahalko dituzte. Bigarren fasean, azken fasera igaro diren eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten proposamenak bozkatzeko aukera egongo da.

"Elorriarren eskutik Elorrio hobea eraikitzen jarraitu gura dugu. Elorri bizi diren den iritzia jasotzea da lehentasuna gobernu talde honentzat, eta prozesu hau beste aukera bat da horretarako. Horregaitik,

proiektu berriak eta hobekuntza proiektuak proposatzera animatzen zaituztegu", azaldu du Idoia Buruaga alkateak.

16 urtetik gorako bizilagunek proposatu ahal izango dituzte proiektuak. "Herritar bakoitzak udaleko edozein arlo edo eremugaz erlacionaturiko proposamenak egin ahal izango ditu", jakinarazi du Maria Herrero.

## Informazio topaketak

Horrez gainera, hainbat ekimen jarri dute martxan herritarren parte hartzea bultzatzeko: DBH 4koekin topaketak egin dituzte, ekainaren 28an pertsona bat herriko auzoetara joango da prozesuaren berri ematera, eta, gainera, ekainaren 30ean informazio txokolatada bat egingo dute Aldatsekuan, erretiratuen etxean, 18:30ean.



Maria Herrero eta Idoia Buruaga.

# Libe Ajuriaren kartelak iragarriko ditu aurtengo Ferixa Nausikoak

Elorriko Udalak antolaturiko kartel lehiaketara sei lan aurkeztu dituzte guztira. Ajuria 500 euro jasoko ditu

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Udalak asteen jakinarazi du Libe Ajuria Fondadorek Sentitu taupadak lanak iragarriko dituela Ferixa Nausikoak.

Udalak antolaturiko kartel lehiaketara sei obra aurkeztu zituzten guztira. Kartel irabazlea elorriarren botoak kontuan hartuta eta epaimahai teknikoak aukeratuta erabaki da. Udaleko ordezkariak, jai batzordeak eta arte grafikoetako profesionalak osatzen dute epaimahai teknikoa. Jaietako kartel iragarlea esku programako azalerako ere erabiliko dute. Kartelaren egileak 500 euroko saria irabazi du.



Libe Ajuriaren kartela.





**Anbotok Mendexa Abentura  
Parkerako 5 sarrera  
bikoitz zozkatuko ditu  
Anbotokideen artean.**

*\*Izena emateko azken egun  
ekainaren 30a izango da.*

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

**Egin zaitez anbotokide!**

**30€  
urtean!**

**> anboto  
kide**

# Eusko Jaurlaritzak osasungintza publikoa "desegiteari" ekin diola salatu du ZOPA plataformak

Plataformaren berbetan, Sagarduik aipaturiko kultura aldaketak "pribatizazioa eta zerbitzuen prekaritatea" ditu helburu

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

ZOPAk, Zornotza Osasun Publikoaren Alde plataformak, elkarretartzea egin du, asteon, osasungintza publikoa "defendatzeko". Herritarrek osasun zentroaren aurrean kontzentratu dira protestan. Plataformako kideen esanetan, Eusko Jaurlaritzak osasun zerbitzu publikoak "desegiteari" ekin dio. Lehen Arretako medikuen "errelebo falta", adibidez, "aspaldi erabakitako estrategia politikoaren emaitza" dela iritzi dio plataformak. "Profesionalak falta diote, euren kudeaketa negargarria eta osasungintza publikoa indartzeko inplikazio eta konpromiso falta estaltzeko", gaineratu dute.

Gotzone Sagardui osasun sailburuak orain aste pare bat aipaturiko "kultura aldaketaren" harira, ZOPAk kideek diote adierazpenek "osasun zentroak zarratzea eta medikurik bako osasun arreta" iragarri dutela. "Seguruenik, Zornotzako osasun zentroa ez dute zarratuko, baina badakigu zer gertatzen dabilen



Protesta eguazten goizean egin zuten, Zornotzako anbulatorioaren aurrean.

Etengabeko Arreta Guneekin, urgentzia zerbitzuekin eta kirurgia unitateekin", diote. "Urteetako pribatizazio prozesu hau zuzenean loturik dago Eusko Jaurla-

ritzaren strategiagaz. Argi dago egoera hau herritarren zaintzari begira ez egoteagatik harturiko erabakien ondorio dela", kritikatuko dute.

ZOPAk ekainaren 26an Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzea deitu ditu herritarrek. Mobilizazioak 12:00etan irtenango du, Jesusen Bihotzetik.

## Zornotzako Matrailu gaztetxe-ko kideen kontrako epaiketa hasi dute

### ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Matrailu gaztetxe-ko kideek adierazi dutenez, asteon eskualdeko lau gazteren kontrako epaiketa hasi dute Durangoko epaitegian. Auzipe-turiko hiru gazte zornotzarrak dira eta laugarrena durangarra. Gaztetxe-ko kideen berbetan, "okupazio delitua" egotzi diete lauri. Epaiketa martitzenean hasi zen, baina Matrailuko kideek diote epaileak saioa "atzeratu" zuela, "frogak aurkeztera deituriko udaltzaina ez zelako agertu". "Epaiketa oinarritzen duen froga bakarra Zornotzako udaltzaingoaren atestatu bat da, baina epaiketara ez zen udaltzaingoko inor agertu lekukotasuna ematera. Hori dela eta, epaileak saioa atzeratzea erabaki zuen. Eraikinaren jabea bai, agertu zen epaiketara", azaldu dute. Zornotzako Gazte Asanbladak Ogena auzoko Perforación S.A. lantegia izandakoa okupatu zuen iazko urrian. Euren berbetan, eraikina hutsik zegoen 2009tik.

# Hezkuntzagatiko diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu dute lurretan

lurretako Udalak 10.000 euroko diru poltsa lotu du hezkuntzagatiko diru laguntzetarako, eta herritarrek uztailaren 11ra arte dute zabalik eskabidea aurkezteko epea

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Ikasturte honetan, Iurretako Udalak diru laguntzak emango ditu haurtzaindegitik DBHra bitartean eskolatutako seme-alaben hezkuntza gastu orokorren zati bat ordaintzeko. Guztira, 10.000 euro ipiniko dituzte poltsa horretan.

Udalak diru kopuru zehatz bategaz lagunduko du, familia errentaren, seme-alaben edo ardurapeko adingabeen ikasketa mailaren eta kide kopuruaren arabera zehaztuko dena. Hona-ko tarte hauek zehaztu dira: Haurreskola (150 euro), Haur Hezkuntza (45 euro), Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. eta 2. maila (45 euro) eta DBHko 3. eta 4. maila (75 euro). Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo [www.iurreta.eus](http://www.iurreta.eus) webgunean eskuratu daitezke eskabide orria. Eskabide orri bakarra tramitatu ahal izango da familia bakoitzeko.

Familia-unitate osoa lurretan erroldatuta egotea beharrezkoa da, urtarilaren 1etik aurrera,



Diru laguntzetarako eskabide orria Herritarren Arretarako Zerbitzuan eskuratu daitezke.

gutxienez. Haurtzaindegitik DBHko 4. mailaraino eskolatutako seme-alabak edo ardurapean adingabeak izatea ere beharrezkoa da. Iazko urtarilaren 1etik eskatzailearen bizilekuan erroldatu

datuta egon behar dira, eta "ardurapean dituzten seme-alabak eta adingabeak behar den moduan eskolatuko direla bermatzeko konpromisoa" hartu behar da, udaletik jakinarazi dutenez.



Artxiboko irudia.

## Eguaztenean hasiko dituzte Eitzagako jaiak

Auzoko jaiak ekainaren 29an hasiko dira eta uztailaren 3ra arte iraungo dute; ohiko egitarauagaz bueltatuko dira

### ZALDIBAR • A. M.

Adin eta gustu desberdinetarako egitaraua antolatu dute Eitzaga auzoan. Donien Atxa barikuan altxatuko dute, uztailak 1, baina, bezperan, nagusiek afaria egingo dute Eitzako Auzo Etxean. Uztailaren 2an paella eta tortilla lehiaketak egingo dira; iluntzean bolo txapelketa jokatuko

da, eta bitartean saiheski errean jango dute. Aurtengo Eitzagako jaiak domekan amaituko dira, uztailaren 3an. Festak borobiltzeko, meza egingo dute San Pedro ermitan. Ostean, Ermuko Txindurri dantza taldeak saioa egingo du, eta egunari amaiera emateko, herri kirolak egingo dituzte.



Udalak hainbat ekitaldi antolatatu du ekainerako, uztailerako eta abuzturako.

## Hortzmugaren 'Jule' ikuskizunagaz udako egitaraua hasiko dute Mañarian

San Juan egunagaz batera, ekitaldiz beteriko 'Uda be kulturaz girotu' programari ekingo diote Mañarian

**MAÑARIA • J.D.**

Mañariko Udalak kultur programa antolatu du udara begira. Gaur izango da lehenengo ekintza, San Juan egunean. Ermitako meza ostean, 19:00etan, Hortzmuga konpainiak *Jule* kale ikuskizuna egingo du. "*Jule* familia osoarentzako ikuskizuna da. Umorea, fantasia eta publikoarengana

hurbiltzeko gure modu berezia uztartzen ditu", diote Hortzmugako kideek kale antzerkiaren inguruan.

Zapaturako egun-pasa antolatu dute. Goizean Hondarribia bisitatu eta Aguinaga sagardotegian bazkalduko dute. Bazkalostean, Zarautz bisitatuko dute etxera bueltatu aurretik.

## Otxandioko plaza eraberrituaren inaugurazioa egingo dute zapatuan

Pilota partiduekin, luntxagaz eta erromeria batez, urte askoan iraun duen egitasmoa amaitu dela ospatuko dute

**OTXANDIO • J.D.**

Azken 20 bat urteetan, Otxandioko Udalak hainbat lan egin du herrigune historikoaren garrantzia nabarmentzeko. Lehenengo, erdigunea oinezkoentzat egokitu zuten eta Andikonako Plaza zein Bolalekua guztiz eraberritu zituzten. Azken hamarkadako lehen-

tasuna plaza nagusia eraberritzea izan da. Orain, plaza nagusiko inaugurazioa egingo dute, zapatuan, 18:00etan. Lehenengo, pilota partidua egongo dira, Iluntxu elkarteak antolatuta. 19:00etan luntx herrikoia egingo dute, Kontseilupean, eta 20:00etan Gauargiren erromeria hasiko da.



Plazako lanak ekain hasieran amaitu zituzten.

## Río de Oro 80 boluntario prest ditu ume sahararak Izurtzan hartzeko

**IZURTZA • J.D.**

Río de Oro elkartearen bitartez, hainbat ume saharar laster helduko dira Izurtzara udako aste batzuk igarotzera. Urteroko erronkari aurre egiteko, elkarrekin boluntario bila ibili da azken asteetan, eta jasoriko erantzunagaz "oso pozik" daudela adierazi du.

**"Oso harrera ona jaso dugu eta pozik gaude", adierazi du Río de Oro elkarteko Mikel del Arcok**

razi du Río De Oroko Mikel del Arcok. Oraingoan, 80 boluntario dituzte. Euren artean "jende berri asko" dagoela nabarmendu du. "Aurreko aldietan baino gehiago zabaldu dugu boluntario bila genbiltzala, eta, egia esanda, oso harrera ona jaso dugu. Urtero errepikatzen duen jende asko ere badago", gaineratu du. Horrela, umeei ahalik eta zerbitzurik onena emateko prest daudela dio del Arcok.

**BETI GERTU!**

**ELORRIORA**

**HEMENDIK**

Begiratu aukerak gure webgunean:  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh.  
48215, Iurreta

# Martxan da ANBOTOk antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketa

**DURANGALDEA** • MAIALEN ZUAZUBISKAR Zortzi urte pasatu dira ANBOTOk bere irakurleen argazkilari senari bidea eman eta udako argazki lehiaketa antolatzen hasi zenetik. Aurten ere, arlo bitan aurkeztu daitezke argazkiak: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena. Parte hartu gura dutenek [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean ipini beharko dituzte argazkiak. Argazkiak irailaren 16a baino lehenago igo beharko dira.

Sariei dagokienez, lau sari egongo dira. Durangaldeko argazkirik

onenak atalean, epaimahaiaren saria irabazten duenak bidaiatzeko maleta bat eskuratuko du Euskal Herriko produktuez betea, Al Camporen eskutik. Durangaldetik kanpoko argazkirik onenak ere bidaiatzeko maleta bat eskuratuko du, baina Gourmet produktuekin betea. Publikoaren sariari dagokionez, Durangaldeko argazkirik bozkatuenak egonaldi bat irabaziko du Garaiko landetxean. Durangaldetik kanpoko argazkirik bozkatuenak Databostek emandako tablet bat eskuratuko du.



laz, Asier Arteagaren argazki honek irabazi zuen lehiaketa.

## Politikan

Garazi Errasti  
Silloniz  
EH-Bildu



### Durangoko uda kulturaz girotzeko apustua

Uda heldu zaigu eta honekin batera arratsalde epeletako lagun arteko tragoak, herrietako jaiak, musika festibalak eta iluntzeetako antzerki eta kontzertuak.

Zein garrantzitsua den lanetik irten eta ditugun arazo eta buruhausteak momentu batez ahazteko entretenimendua izatea. Hori da kultura, errealitatetik at izatea ahalbidetzen duena, barrea edota negarra eragin eta instant batez dena ahantzazten diguna.

Urtero legez, ohitura zaharrak ezin direnez galdu, Durangoko udaletik aurten ere kultura epizentroan jartzen duen egitarau zabala sortu dugu, UDA GIRO delakoa. Durangarrok antzerki, zirku, musika eta emanaldi ezberdinez disfruta dezagun pentsatutako egitaraua.

Gainera, Durangon bertan ditugun artista eta kultur eragileen parte hartzea ezinbesteko zaigunez, ikuskizun horien parte izango dira. Zer da ba herri bat bertako jende eta eragile barik. EH Bildutik argi daukagu kultura barik ez garela ezer, kulturak herri egiten gaitu eta herriak kultura egiten du.

Kultura eta kalea batu eta edozein edadetako pertsonak gozatzeko zirku, dantza, musika, poesia eta abarreko emanaldiak barne biltzen ditu gure kultur programak. Gure herriko plaza eta txokoetan bizi ahal izango ditugu ikuskizun hauek, horrela herriko gure eraikin eta lekuak ezagutu eta aprobetxatuz.

Bizi eta gozatu kulturaz, hau baita gure bizitza eramangarri eta alaiagoa egiten duen ardatz garrantzitsuenetako bat. Babestu kultura eta zatoz UDA GIROra!

## Durangaldea asteen

### Pertsona nagusien XX. Aste Kulturala egiten dabilza lurretan

**IURRETA** | Goiuriko Ama nagusien elkarteak Pertsona Nagusien XX. Aste Kulturala antolatu du. Martitzenetik hona, Iurretako nagusiek hainbat ekimen izan dute. Gaur, esaterako, 18:00etan, musika ikuskizuna izango dute. Aste kulturalari datorren eguaztenean emango diote amaiera, bazkide egunagaz.



### Elorrioko 301 lagunek parte hartu dute 'Belaunaldi artean' programan

**ELORRIO** | Herriko gazteen eta adinekoen arteko ezagutza sustatzeko, 'Belaunaldi artean' ekimenak antolatu dituzte Elorrioren. Udaletik jakinarazi dutenez, 301 lagunek parte hartu dute guztira: Elorrio hiru ikastetxeetako 261 ikaslek eta herriko 40 adinekok.



### Durangoko udaltzaingoaren egoitza udaletxeko beheko solairuan dago berriro

**DURANGO** | Udaltzaingoaren bulego berrien lanak amaitu berri ditu Durangoko Udalak. Orain arte, udaltzaingoaren bulegoek 412,57 metro karratuko azalera zuten. "Eraberritzearen helburua udaltzaingoaren bulegoak berregokitzea izan da, egungo premiekin bat datozen instalazioak lortzeko espazioak berrantolatuz. Horretarako, solairu bietan jardutea planteatu da, egungo erabileren eskemari eutsita", azaldu du udalak ohar batean.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

**Ainara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com


## Urtu aurretik

Aurkezpen errezitaldia

Xabi Borda & Felipe Murillo.



Ekainak 30, eguena, 19:00-tan. Hitz liburu-dendan.



Zaldibarko Udalak  
Jai zoriontsuak opa deutsuez  
zaldibartar guztioi



Zaldibar  
Elizateko  
Udala

## Zaldibarko jaiak 2022

### Ekainak 24, barikua

**22:00 Profesional mailako pilota partiduak**, Olazar pilotalekuan, Zaldua Pilota Taldeak antolatuta.

### Ekainak 30, eguena

**21:30 Pilota partiduak: Olazar txapelketaren errebantxa**. Zaldua Pilota Taldeak antolatuta.

### Uztailak 1, barikua

**17:00 Pilota partiduak: Durangaldeko gazte mailako finalak, ondoren emakumeen senior mailako pilota partidua**. Zaldua Pilota Taldeak antolatuta.

### Uztailak 1, 2 eta 3

**11:00-13:00 eta 16:00-19:00 Ur-jolasak** Olazarren.

**10:00-14:00 eta 17:00-20:00 Zaldibarko Koralarren 75. urteurrena: argazki erakusketa**, udaletxeko plazan.

### Uztailak 2, zapatua

**19:00 Zaldibarko Koralarren 75. urteurrena: Zaldibarko Koralarren kontzertua**, elizan.

### Uztailak 3, domeka

**08:30-14:30 XXVIII. argazki rallya**, liburutegi zaharrear.

### Uztailak 6, eguaztena

**19:30 Argazki emanaldia**, liburutegi zaharrear

### Uztailak 7, eguena

**18:00 HERRIXEN JAIXEN jaitsiera Zaldua plazatik**, eta txosnen irekiera.

**18:30 Donien Atxa**, ondoren jaietako kartel lehiaketako sari banaketa.

**19:00 Dantzak**; jarraian, Zaldua saskibaloitako taldeko emakumeen ekipoak txaplogua jaurtiko du jaien hasiera iragartzeko, eta, gero, buruhandiak.

**19:30 Trikibertsopoteoa** txosnagunetik hasita.

**20:00 Odoloste-jana**, Bekoetxe kalean.

**23:00 Kontzertua: Worth It**, txosnagunear

**00:00 DJ Zaukena Zauk**, txosnagunear.

### Uztailak 8, barikua

**08:30 eta 09:30 Familientzako mendi irteera** udaletxeko plazan hasita.

**12:30 Herri kirolak udaletxeko plazan**, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.

**17:00-18:00 Apar festa**, udaletxeko plazan.

**19:00 ElektroHATXEranga**, txosnagunetik hasita.

**23:00 Kontzertuak: KEIKE + KOP**, txosnagunear.

**23:00 Dantzaldia DJ Josemarigaz**, Euskal Herria etorbidean.

**03:00 Kulero**, galtzontzillo eta tanga martxa, txosnagunear.

### Uztailak 9, zapatua

**10:00-12:30 Arku jaurtiketa ume eta nagusientzat** Olazarko galerian, Zaldibar Arku Taldeak antolatuta.

**11:00 Zaldibarko Koralarren 75. urteurrena: Araiako bandaren kalejira**.

**11:00 - 12:00 Zunba saio herrikoia** adin guztientzat, udaletxeko plazan.

**12:00 Tortilla txapelketa**, eskolako aterpean.

**13:00-13:30 Zaldibar Arku taldeko arkularien erakustaldia**, Olazarko galerian, Zaldibar Arku Taldeak antolatuta.

**13:00 Zaldibarko Koralarren 75. urteurrena: Araiako bandaren kontzertua**, Zaldua plazan.

**14:30 Herri bazkaria**, txosnagunear.

**16:00 3X3 saskibaloitako txapelketa**, kiroldegian.

**17:00 Olinpiadak**, txosnagunear.

**18:00 Kale antzerkia: Akabo**, Zaldua plazan.

**19:00 Matraka elektrotzaranga**, txosnagunetik hasita.

**19:00 Afari-merienda**, Olea kalean. **Solomoa (1 €) eta sardinak (1 €)**.

**20:00 Novisi kalejira** Olea kaletik hasita.

**23:30 Altxaporru taldeagaz erromeria**, txosnagunear.

**03:30 Gorka Perez DJ**, warm up: **Lander Luque DJ**

### Uztailak 10, domeka

**09:30 UDABERRIKOPA**, Bizkaiko txirindulari eskolen arteko proba: **hasiberriak, alebinak eta infantilak**. Hasiera Autonomia kalean.

**11:00-13:00 eta 16:00-19:00 Umeen jolas parkea**, eskolako patioan.

**11:00 Meza**, San Martingo ermitan.

**12:00 Euskal dantzak**, Zaldua plazan.

**18:00 Bertso-saioa**, Zaldua plazan: Nerea Ibarzabal, Beñat Gaztelumendi, Peru Abarrategi eta Jone Uria. Gai jartzaile: Ainhoa Urien.

**23:00 Su artifizialak**.

### Uztailak 16, zapatua

**07:00 Zaldibarko XLIII. mendi martxa**, Zaldua plazan hasita. Amaitu: udaletxeko plazan.

### Uztailak 21, eguena

**19:00 Argazki rallyaren emanaldia eta sari-banaketa**, liburutegi zaharrear.

**SIKULAN** Cutting Tool Technologies

WWW.SIKULAN.COM

KASU BAKOITZERAKO SOLUZIO EGOKIENA

C/ Zubiaurre 5 - E-48250 Zaldibar - Bizkaia  
Tel. 94 682 74 78 - sikulan@sikulan.com

**GAI**

**MUELLES ZALDUA S.L.**

**MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN**

Tel.: 946 827 801 · Faxe.: 946 827 654  
San Andres etorbidea, 1  
48250 ZALDIBAR  
info@muelleszaldua.com  
www.muelleszaldua.com

**IMENDIA**

- Bideo alokairua
- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxe: 946 827 413  
Zalduasolo E.7 · ZALDIBAR

# Zaldua saskibaloitako taldeko jokalariek Zaldibarko jaien hasiera iragartzen duen txaplogua botako dute, uztailaren 7an

Sekulako errendimendua izan dute eta denboraldi bikaina borobilduta Bizkaiko Lehenengo Erregionalerara igo dira, liga osoan partidu bakarria galduta



Zaldua saskibaloitako taldeko jokalariek.

## ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Zalduko saskibaloitako jokalariek denboraldi ezin hobea izan dute, eta hileotan zehar egindako lana aitortzeko, Zaldibarko jaietan txupinazioa jaurtitzeko aukeratu dituzte. Maiatzaren 9an, Bizkaiko Bigarren Erregionaleko Lauko Finala jokatu zen Zaldibarko kiroldegian, eta Zaldua, etxeko taldea, izan zen protagonista nagusia. Finalerdietan, Zalduak Portugaleten kanporatu zuen eta Berrio-Otxoak Urdaneta. Ondorioz, Bizkaiko Lehenengo Erregionalerara igo dira, denboraldi bikaina borobilduta. Liga osoan

partidu bakarria galdu dute eta gainerako denak irabazi egin dituzte.

Zaldibarren iaz berreskuratu zuten emakumeen taldea eta entrenatzaile ikastaroa amaitu berri zuten Oscar Sanchezek lehenengo hartu zuen talde senior baten gidaritza. Esperientzia gutxigaz izan bazen ere, sekulako errendimendua eskaini dute, liga osoan partidu bakarria galduta.

Ingrid Herreros taldeko kapitaina pozik dago txupinazioa jaurtitzegaitik. "Oso pozik gaude txupinazioa jaurtiko dugulako, batez ere zaldibartarrak garen jokalariek.

Denboraldi honetan mailaz igo direla eta, gustura daude taldeki-deak. "Oso urte polita izan da. Bost urte jokatu barik egon eta gero, taldean hasi nintzen berriro eta ez nuen espero denboraldia horrela amaitzea", gaineratu du Herrerossek.

## Jaietan parte hartuz

Kirolak protagonismo handia izaten du Zaldibarko jaietan. Zaldua pilota taldeak antolatuta, profesional mailako partiduak izango dira gaur. Lau t'erdian, Erik Jakak eta Jon Ander Peñak indarrak

neurtuko dituzte. Binaka, Unai Lasok eta Aitor Arangurenak Asier Agirrerren eta Jon Ander Albisuren

**Liga osoan partidu bakarria galdu dute eta gainerako denak irabazi egin dituzte**

kontra jokatuko dute. Ekainaren 30ean ere pilota partiduak izango dira. Egun horretan, Aimar Morgaetxebarriak afizionatueta azken partiduak jokatuko du. Uz-

tailaren 1ean, Durangaldeko gazte mailako finalak jokatuko dituzte. Ondoren, emakumeen senior mailako pilota partiduak izango da.

## Kontzertuak txosnagunean

Txosnagunerako hainbat kontzertu antolatu dute. Uztailaren 7an, Worth It talde berrizarrak hardcore musika joko du. Ondoren, DJ Zaukena Zauken txanda izango da. Bestalde, uztailaren 8an Keike eta KOP talde katalana arituko dira txosnetan. Uztailaren 9an, Altxaporru taldeak erromeria doinu dantzagarriak joko ditu.

**OSTARGI  
BERRIA**  
94 682 69 50



José David Espinosa Gonzalez

**LEUNKETAK eta  
BERNIZADURAK**

**OHOLTZA BERRIAK ETA ERABILAKOAK  
PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEAN**

**CAPELO**

Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

**SATE FATXADAK**  
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema  
**ESTALKIAK**  
**MERKATARITZAKO LOKALAK**  
**ETXEBIZITZAK**  
**ATARIAK**  
**IGOGAILUAK**  
**GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Zeharkalea, 10 behe  
ERMUA (Bizkaia)  
943 172 767 / 629 401 713 / 629 401 712



**Karobi**  
TABERNA

Zalduasolo plaza, 2  
48250 Zaldibar  
Tel.: 654 619 644

**maderlan**  
Interiorismoa · Berrikuntzak · Altzariak

Bilbao etorbidea, 9 · 48250, Zaldibar  
Tel.: 946 225 074 · info@maderlan.com



**SORGIN**

Euskal Herria Etorbidea, 8  
48250- Zaldibar



**gaurko**  
asesoria zaldibar

Zalduasolo plaza 1, behea  
Zaldibar - 48250  
946 225498  
gaurko@gaurko.net




**ELECTRICIDAD  
EGUZKI, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115  
48220 MATIENA - ABADIÑO  
eguzki@elect-eguzki.es  
689 709 602 Jabi  
946 815 201 f: 946 818 658

**ZUBIZARRETA**  
Abogados



Solonagusia 1, behea ezk. 48250, ZALDIBAR  
T.: 946 050 887 F.: 944 651 243  
www.szubizarreta.com · abogados@szubizarreta.com

**BARATZA** FRUTADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea  
Tel.: 946 225 063  
Zaldibar, Bizkaia



**PAULAREN ZOKOA**  
**KAFE**  
EL RINCON DE PAULA

07:00etatik  
aurrera zabalik

Euskal Herria, 18  
946 550 481 - Zaldibar

Paularen Zokoa

## Jaietan, Zaldibarko Koralarren urteurreneko hainbat ekintzaz gozatu ahal izango da

Zaldibarko Koralak makina bat ekimen antolatu du 75. urteurrena ospatzeko, eta euretariko batzuk jaien barruan gozatu ahal dira; esaterako, uztaillaren 2an kontzertua emango dute



Zaldibarko Korala, Baionako Euskal Museoan egindako kontzertuan.

### URTEURRENA • JOSEBA DERTEANO

Zaldibarko Koralak 75 urte bete zituen orain urte bi, 2020an. Urteurrena ospatzeko egitaraua prest zutenean, pandemiak asmo guztia zapuztu zien. Orain, egoera hobetu denez, ideia berrartu eta hainbat ekimen prestatu dute urtean zehar egiteko. Euretariko batzuek herriko jaietako egunekin kointziditzen dute eta ekimenen bat sasoi honetara aurreratu beharra ere izan dute, aurrerago beste konpromiso batzuk dituztelako. Batera zein bestera, Zaldibarko Koralarren urteurreneko hainbat ekimenek jaietako egitaraua aberastuko dute.

### Argazki erakusketa

Uztaillaren 2rako eta 3rako, goize-rako zein arratsalderako, argazki erakusketa bat antolatu dute. Udaletxeko plazan egingo dute. Ilargi argazki taldearen laguntza izan dute ekimena prestatzeko. Zurezko egitura batean, bost panel handitan, atzoko eta gaurko argazkiak ipiniko dituzte, koloretakoak zein zuri-beltzekoak. "Jendeak bere etxeok, bere lagunak, auzokoak... ikusiko ditu argazkietan. Denerik dago", adierazi du Antton Burgoa Zaldibarko Koraleko kideak. Koraleko ordezkariak ere hantxe egongo dira, gura duenari argazkiei buruzko azalpenak ematen edo dudak argitzen.

### Kontzertua

Urteurrenari begira antolatu eta jaietan gozatu ahal den beste ekimen bat uztaillaren 2ko kontzertua da. Koralak berak emango du, arratsaldean, Zaldibarko elizan. Ildo anitzeko bederatzi-hamar kanta abestuko dituzte: euskarazkoak, erlijiosoak, gospel amerikar estilokoak... Sarritan erabili izan duten abesti zerrenda da. Lau-bost urte dira herrian hain

### Badira lau-bost urte Zaldibarren ez dutena hain programa luzeko kontzerturik eman

programa luzeko kontzerturik egin ez dutena, eta hori ere berezitasunetariko bat da. Saio laburrak egin izan dituzte, mezatan edo meza ostean, noizerik noizera, baina oraingoan, aspaldiko partez, ordubeteko kontzertua emango dute Zaldibarren.

### Araiako bandaren saioa

Uztaillaren 9an, Araiako bandak kalejiran irtengo du goizean, eta eguerdian kontzertua emango du, Zaldia plazan. Araiako bandak Zaldibarko Koraleko urteurrenean parte hartzeak badu bere zergaitia, eta Burgoak eman du horren erantzuna: "Urteetako

hartu-eman dugu Araiako abesbatzagaz eta bandagaz. Birritan egonda gaude han, eurak ere aurretik Zaldibarren egonda daude, Otxandioko emanaldi batean ere elkarregaz ibili ginen... Gertukoak dira". Kontzertua 13:00etan hasiko da. "Plaza hori aukeratu dugu toki trankil samarra delako kontzertua ikusteko", zehaztu du Burgoak.

### Umeen gonbidatuak

Zaldibarko Koralarren urteurrena jaietatik kanpora antolaturiko beste hainbat ekimenek ere osatuko dute. Euretariko bat eguazten honetan izan da, hilak 22. Zaldibarko koralekoek abesti pare bat kantatu zuten musika eskolako umeen emanaldiaren aurretik.

### Jende berriak atea zabalik

1945etik hona, koralekoek makina bat ekintza antolatu eta kontzertu eman dute. Abesbatza gaur egun zelan dagoen galdetuta, Bizkaiko koru askok eta Gipuzkoako geroago eta gehiagok duten arazoa nabarmendu du Burgoak: jendea falta da. Egun, 20 bat kidek osatzen dute korua. Beste era bateko musika kontsumitzen den sasoiari, "geroago eta gatzagoa" ei da gazteak erakartzea. Gura duenarentzat "atea zabalik" dutela adierazi du Burgoak eta pozik hartuko dituztela: "Bai horixe. Gu desiatzen gaude".





# MATEMATIKA

$$\text{Red fish} = 8$$

$$\text{Yellow fish} = 3$$

$$\text{Green fish} = 5$$

$$\text{Blue fish} = 2$$

$$\text{Red fish} + \text{Green fish} - \text{Yellow fish} =$$


$$\text{Green fish} + \text{Yellow fish} / \text{Blue fish} =$$

$$\text{Green fish} \times \text{Blue fish} - \text{Green fish} =$$

$$\text{Red fish} + \text{Blue fish} / \text{Green fish} =$$

$$\text{Green fish} \times \text{Yellow fish} - \text{Red fish} =$$

# LABIRINTOIA




# ITZALAK

Zein itzal dagokio  
beheko otsoari?



# TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu itzazu txikitik handira beheko espaziontzi hauek.



# DIFERENTZIAK


Topatu 7 diferentziak



# SEKUENTZIARI JARRAITU

Puntu arrosatik hasita, jarraitu beheko sekuentziari eta irudia lortuko duzu.  
Zer izango ote da?

1 ↖ 1 ↑ 1 → 3 ↗ 5 → 3 ↘ 2 ↓ 4 ↗ 1 → 3 ↓  
2 ↘ 2 ↘ 3 ↓ 1 ← 4 ↖ 2 ↘ 2 ← 1 ↓ 1 ↘ 2 ↖  
1 ← 2 ↖ 1 ← 1 ↑ 1 ↗



Martxan da udako argazki lehiaketa.  
**Igo zure argazkiak**  
irailaren 16ra arte

**UDA KO**  
**8. ARGAZKI**  
**LEHIAKETA**

 **anboto**



Durungaldeko 2021eko  
argazkia  
**IRABAZLEA**



Durangaldetik kanpoko  
2021eko argazkia  
**IRABAZLEA**

## 2 KATEGORIA, 4 SARI

### DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat Euskal Herriko produktuz betea.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

### DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Al Camporen eskutik, bidaiatzeko maleta bat beren markako Gourmet produktuekin.
- Publikoaren saria: tablet bat.

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK

  
Informetiko & Telekomunikazioak

  
DURANGO

  
Garai  
Landetxea

Informazio gehiago [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

## Ekainaren 24an

### ATXONDO sanjuanak

**Meza**, 11:30ean, Axpen. Ondoren, herriko jubilatuentzat **luntxa**.  
**Briska txapelketa**, 17:00etan.  
**Esku pilota**, partidu mistoak, 19:00etan.  
**Kontzertuak**, 23:00etan:  
**Estutu + Fito Skins**. Ondoren, **Dj Bull**.

### DURANGO sanpedroak

**Txistulariak**, 09:00etan, Tabira auzoan.  
**Txupinazoa**, 19:00etan.  
**Tortilla jana**, 20:00etan.  
**Kontzertuak**, 21:00etan:  
**Parkatu + Ainke + Banda Baffana + Peio eta Itsua + Sigeruban & Pula Gzon**.

### MALLABIA sanjuanak

**Sanjuanetako lore erramilletea egiteko tailerra**, 18:00etan, Goita auzoan.  
**Gazte Alai taldeko dantzariak**, 19:00etan.  
**Meza**, 20:00etan.  
**Bertso afaria**, 21:30ean: Aitor Sarriegi eta Sustrai Colina. Gai jartzailea: Beñat Ugartetxea.

## Ekainaren 25ean

### ATXONDO sanjuanak

**Egun mexikarra**.  
**Bakailaoa pil-pilean eta patata tortilla lehiaketa**, goizean zehar, Axpen.  
**Plateren aurkezpena**, 14:00etan. Ondoren, **herri bazkaria**, frontoian. Bazkalostean **bingoa**.  
**Mus txapelketa**, 17:00etan.  
**Los Tenampas mariatxiak**, 21:00etan. **Mexikoko jantzirik onenarentzat saria**.  
**Mexikar gaua**, 22:30ean.

### ABADIÑO ikastaroa

**Aire libreko akuarela ikastaroa Urkiolan**, 09:30etik 13:30era. Aurrez izena eman behar da [irribarrez.tirak@gmail.com](mailto:irribarrez.tirak@gmail.com) helbidera idatzita. Doakoa.

### ABADIÑO musika

**Koba Live Metal Jaialdia: Elbereth + The Faithless + The Kraven + Orion Child + Vita Imana + Vhaldemar+ Unholy Covers**, 17:00etan, Traña-Matienako eskoletako futbol zelaietan.

### ABADIÑO koplak

**Durangaldeko VII. Kopla Txapelketa**, 22:30ean,

Mendiolako frontoian: Eneko Abasolo 'Abarkas', Ander Aldazabal, Iruri Altzerreka, Janire Arrizabalaga, Aitor Bizkarra, Ander Elorriaga, Erika Lagoma, Araitz Katarain, Peru Magdalena eta Bittor Salterain.

### ELORRIO jaialdia

**Haur Minbiziaren Aurkako Maratoi Solidarioa**, Ganondo parkean.  
**Zozketa solidarioa**, 10:00etan.  
**Aurpegiak margotzea eta haurrentzako jolasak**, eta **Txikobox erakustaldia** (Indar X Sport kick boxing kluba), 11:00etan.  
**Futbola**, 11:00etan: Elorrio-Kulturala  
**Kontzertuak** 12:00etan:  
**Enekovich + Mr. JL + Petite eta Lagunak**.  
**Paella solidarioa**, 15:00etan.  
**Saskibaloia**, 16:00etan. Elorrio, Zaldua, Tabirako, Zornotza. Era berean, Masterclass Jigger.  
**Haurrentzako jolasak**, 17:00etan.  
**Kontzertuak**, 18:00etan:  
**Geminni + Artaburuak + Frakture**.  
**80'S Music**, 21:30ean.  
**Mesa-Rock**, 22:30ean.

### DURANGO Murueta Torreko jaiak

**Txupinazoa**, 10:00etan.  
**Paella txapelketa**, 11:00etan (aurkezpena, 14:00etan). Ordu berean, **Gorabideren merkatua**.  
**Aurpegiak margotzeko tailerra**. Igel txapelketa, 12:00etan.  
**Umeentzako jokoak**, 13:00etan.  
**Thor Magoa**, 17:00etan.  
**Apar jaia**, 18:00etan.  
**Txokolatea**, 19:00etan.  
**Zozketa**, 20:00etan.

### DURANGO sanpedroak

**Spining maratokia**, 09:00etan, Ibaizabal ikastolan.  
**Marmitako txapelketa**, 10:00etan, Tabira auzoan.  
**Ibaizabalen gazteentzako kirol jolasak**.  
**Lapiko aurkezpena**, 14:00etan.  
**Sari banaketa**, 15:30ean.  
**Gazteentzako kirol jolasak**, 16:00etan, Ibaizabalen.  
**Mus eta partxis txapelketa**, 17:00etan.  
**Sugarri fanfarrea**, 17:30ean.  
**Kontzertuak**, 18:00etan, 80s-en: **Brothers in Elvis + Nada Cool**.  
**Kontzertuak**, 21:00etan:  
**Biziraun erromeria + Gora Etorri**.

**MALLABIA sanjuanak San Juanetik irtenda ibilbidea**, 10:00etan.

**Bolo txapelketa**, 12:00etan.  
**Patata tortilla lehiaketa**, 19:30ean.

**Umeen jolasak**, arratsaldean.

## Ekainaren 26an

### ABADIÑO kontzertua

Penny Fleckm 13:30ean, Amaraun arte fabrika.

### ATXONDO sanjoanak

**Inguruko artisauen erakusketa**, goizean zehar, Axpen.  
**Meza nagusia**, 11:30ean.  
**Atxondoko Andasto dantza taldea**, 12:30ean.  
**Mus Txapelketaren amaiera**, 13:00ean.  
**Umeen jolasak**, 17:00etan. Gero, **txokolatea**.

### ATXONDO sanpedroak

**Mendi martxa**, 09:00etan, Apatako plazatik. Amaieran, **luntxa** Axpeko jaietan.

### DURANGO sanpedroak

**Lumagorri pintxo dastatzea**, 13:30ean, Tabiran. **Dantza boliviarrak eta ekuadortarrak**.  
**'Kaleak bizirik' (Potx eta Lotx pailazoak)**, 19:00etan, Tabiran.  
**Upelak amaitzea**, 20:00etan.

## Ekainaren 27an

### BERRIZ zineforuma

**'Lesvisibles'**, 19:00etan, Kultur Etxean. Dinamizatzailea: Lala Mujika (ALDARTE).

## Ekainaren 28an

### ATXONDO sanpedroak

**Txopo txikiaren apainketa**, 18:00etan, Gaztetxean.  
**Kalejira trikilariekin**, 19:00etan, Irubidetik plazara txopoa jasotzeko. Ondoren, **pregoia eta kontzertu akustikoa**, plazan.

### BERRIZ sanpedro eta santaisabelak

**Pregoia eta txupinazoa**, 19:00etan, udaletxean. Ondoren, **sardina-jana eta txosnen irekiera**.  
**Donien Atxa jasotzea** eta

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

**Dantzari Dantzako azken entsegua**, 20:00etan, Elizondo plazan.  
Maduixa taldea, 22:00etan.  
Erruki plaza taldea, 22:45ean, Elizondo plazan.

### DURANGO sanpedroak

**Kanpai jotzea**, 19:30ean, Tabira auzoan.

### ZORNOTZA antzerkia

**'Lurrin Minez' (Mauma)**, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

## Ekainaren 29an

### ATXONDO sanpedroak

**Diana txistulariekin**, 10:00etan, Apatan.  
**Meza**, 12:30ean.  
**Andasto dantza taldea**, 18:30ean, frontoian.  
**'Panoli kabareta' (Ganso&Cia)**, 20:00etan, plazan.

### BERRIZ sanpedroak

**Margo lehiaketa umeentzat**, 11:00etan, udaletxeko lorategian.  
**Meza**, 12:00etan. Ondoren, **Dantzari Dantza**.  
**Jubilatuentzat bazkaria**, 14:00etan. Ondoren, musika kiroldegian.  
**'Karpaty' (La Toupe Malabó) zirkua**, 18:30ean, eskolako patioan.  
**Frontenis txapelketak**, 19:30ean, Olakueta frontoian.  
**Dantzari Dantza**, 20:00etan.  
**Merina Gris**, 22:00etan, Elizondo plazan.

### DURANGO sanpedroak

**Txistulariak**, 09:00etan, Tabira auzoan.  
**Meza nagusia eta luntxa**, 19:30ean.  
**Bertso jaialdia**, 20:00etan, Tabira parkean. Aitor Bizkarra, Iruri Altzerreka, Ander Sarriugarte eta Amets Arzallus arituko dira bertsotan. Gai jartzailea: Ander Elorriaga.  
**Txupinazoa**, 21:30ean.

## Ekainaren 30ean

### ATXONDO sanpedroak

**Hamaiketako herriko nagusientzat**, 12:30ean, Apatako Goi Begoi elkartearen.  
**Pintxo-potea**, 19:00etan, txosnan.  
**Pilota partiduak**, 19:30ean,

frontoian: Maialen Garcia eta Jaione Escribano-Narrea Jaio eta Ane Diez / Bengoetxea eta Azanza-Xala eta Pascual.

### BERRIZ sanpedroak

**Tiragoma txapelketa**, 17:00etan, udaletxeko parkean.  
**Berrizko Udaleko lau t'erdiko txapelketako finalak**, 19:00etan, Olakueta frontoian.  
**'La Banda' (Otradanza)**, 19:30ean.  
**Pedro pastor y los Locos Descalzos**, 22:00etan, Elizondo plazan.

## Ekainean zehar

### ZORNOTZA erakusketa

**'Amaigabeko bideak' (José javier Lacalle 'Laka')**, astelehenetik barikura, 17:00etatik 21:00etara, San Migel kaleko lonjan.

### ZORNOTZA erakusketa

**'Gaurko euskal eskultoreak'**, Zelaieta Zentroan. Erakusketak 100 eskultore baino gehiagoren lanak batzen ditu. Ekainaren 16an, **hitzaldi-solasaldia protagonistetariko batzuekin**.

## Zinema

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

#### • Elvis

barikua 24: 19:00  
zapatua 25: 17:00 / 19:30  
domeka 26: 17:00 / 19:30  
astelehena 27: 19:00  
martitena 28: 19:00  
eguztina 29: 18:30

#### • Llenos de gracia

barikua 24: 19:30  
zapatua 25: 17:45 / 20:00  
domeka 26: 17:45 / 20:00  
astelehena 27: 18:00 / 20:15  
martitena 28: 18:00 / 20:15  
eguztina 29: 19:00

#### • Promesas en París

barikua 24: 19:30  
zapatua 25: 20:00  
domeka 26: 20:00  
astelehena 27: 18:00 / 20:15  
martitena 28: 18:00 / 20:15  
eguztina 29: 19:00

#### • Lightyear

zapatua 25: 17:00  
domeka 26: 17:00

# Durungaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

\* **Izan zaitez berriemaile ere.**  
**Bidali zure argazki eta bideoak**

**> anboto**



## “Harrera ona egin digute eta horrek presioa eragiten du, baina gogotsu gaude taulara igotzeko”

Hamalau urteren ondoren, The Kraven talde durangarrak kontzertua joko du; Koba Live jaialdirako bueltatuko dira

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

Hamalau urteren ondoren, The Kraven talde durangarra taula gainera igoko da berriro. Abadiñon izango da hitzordua, Koba Live jaialdian. Urte hauetan ez dira geldirik egon eta entseatzeko jarraitu dute. Urte luzez, Unai Elorza (bateria), Joseba Andoni Irigoras (gitarra) eta Asier Duñabeitia (gitarra) izan dira taldeari eutsi diotenak. Taldekideen joan-etorri batzuen ondoren, boskote modura jarraituko dute. Zapatuko kontzertuan, Erik del Arco (baxua) eta Juan Miguel Abal (ahotsa) ere igoko dira taula gainera. Taldekideak esker oneko agertu dira Koba Liveko antolatzaileek eskaintako aukeragaz.

**Zergaitik orain itzulera?**

**Asier Duñabeitia:** Errenka ibili gara beti, sasoi batzuetan gehiago edo gutxiago entseatzeko; urteotan hirukote lez egin dugu aurrera, jende desberdinagaz probatu dugu, baina kontu bategaitik edo besteagaitik ez zuen funtzionatzen. Aldaketa

horiek, gainera, gogoan eragin digute.

**Joseba Andoni Irigoras:** Urte nahikotxo egin ditugu astero entseatzeko, abesti berriak ateratzen-eta, baina ikusten genuen ezer ere ez zela heltzen, eta horrek animoan ere eragiten du. Juanmigaz probatu

**Abesti berriak borobildu eta grabatzea izango litzateke hurrengo urratsa, baina oraindino ez dugu erabaki ez noiz**

genuen, kontzerturako eskaintza ailegatu zen gero, eta hor serioago hasi ginen abestiak borobiltzeko asmoz. Hilabete batzuetatik hona boskotea gara berriro, Erik geroago batu zen eta. Biek sekulako lana egin dute, eta ekarpenak egin dizkiete abestiei. Kanpoko ikuspuntu horrek beti laguntzen du.

**J. A. I.:** Abestiak geure erara egin ditugu urteotan; Juanmiren ikuspuntua berezia da, inoiz ez duela horrelako talderik eduki. Asko entseatu dugu, ea zelan doan kontzertua.

**Zapatuko metal jaialdia plaza ona izango da zuen musika zuzenekoan eskaintzeko.**

**J.A.I.:** Jaialdiak itxura itzela du! Guk gure esker ona baino ezin diegu erakutsi antolatzaileei, Sergiori batez ere. Fede ekintza bat izan da bere aldetik.

**A.D.:** Harrera ona egin digute eta horrek presio puntu bat ere ekarri digu, baina oso gogotsu gaude hainbeste urteren ondoren berriro taula gainera igotzeko.

**Estilo aldetik, zelakoa da gaur egungo The Kraven?**

**A. D.:** Asko hobetu dugu musikari lez, dudarik barik, eta hori igarri egiten da. Azken finean, urteotan jotzen jarraitu dugu eta horrela hobetzen da. Urteotan talde asko ezagutu ditugu, doinu berri asko eta hori ere igartzen da. Lehen, beharbada, gehiago entzuten genituen Iron Maiden eta Metallica, eta orain doinu progresiboagoak eta djent doinuak atseginago ditugu.

**J. A. I.:** Gutxi gorabehera, estilo berean mantentzen gara. Kanta batzuk zaharragoak dira, baina beste batzuk Juanmi etorri ostean amaitu ditugu. Abesti gehiago ere badugu, urteotan erritmo eta riff

sorta handia batu dugu, baina ez daude borobilduta eta kontzertura begira ez genuen arriskurik hartu gura. Taldekideetarako batzuk aita gara eta ditugun ordutegiekin ez da erraza elkartzea. Bederatzi abesti joko ditugu: lau berri, lau zahar eta bertsio bat.

**Eta, aurrera begira, zein asmo duzue?**

**A. D.:** Abesti berriak borobildu eta grabatzea izango litzateke hurrengo urratsa, baina oraindino ez dugu erabaki ez noiz ez zelan.

**J. A. I.:** Ez dugu ezer lotuta, eta esango nuke ez dela momenturik onena ere horretarako. Dena dela, nobedadeen berri gure sare sozialen birtartez jakin daiteke, @thekraven666 Instagramen.

## Metal doinuek Matienako kaleak hartuko dituzte zapatuan

Zuzeneko irratsaioagaz eta musika jartzaileekin emango diote hasiera Koba Live jaialdiari

**MUSIKA • A.M.**

Goizeko irratsaioagaz eta musika jartzaileekin ipiniko dute martxan Abadiñon Koba Live jaialdia; arratsaldean, kontzertuen txanda izango da. Zazpi talde arituko dira oholta gainera: Vhaldemar, Vita Imana, Orion Child, The Kraven, Elbereth, The Faithless eta Unholy Covers. 16:40an zabalduko dituzte ateak, eta musika festak goizaldera arte iraungo du.

Zapatukoa lehenengo edizioa izango da, eta, antolatzaileen esanetan, "jarraitzeko bokaioagaz" jaio da.

Elbereth talde legazpiarrak zabalduko du kontzertu sorta arratsaldean, eta, euren ondoren, The Faithless talde gasteiztarraren txanda izango da. The Kraven taldeak hartuko du lekukoa gero. Entsegu lokala Abadiñon duen Orion Child taldea 20:00etan oholzaratuko

da. Gauagaz batera helduko dira zalego handia duten taldeetarako bi. Vita Imana madrildarrek buruak astintzera gonbidatuko dute ikusleagoa euren groove metal doinu astunekin; gero, Vhaldemar talde bizkaitarrak hogeituroko ibilbidea ospatuko du Abadiñon. Unholy Covers talde bermeotarrak borobilduko du festa, Kiss, Bon Jovi, Iron Maiden eta Motley Crue taldeen bertsioekin, besteak beste.





Bokale brass band talde baionarrak lehiaketan parte hartuko du.

## Hamar banda lehiatuko dira Zornotzako XV. Haizetara lehiaketan

Ekainaren 24an, 25ean eta 26an egingo dute Haizetara nazioarteko lehiaketa

### HAIZETARA • ARITZ MALDONADO

Zornotzak bere nazioarteko lehiaketarik garrantzitsuen berreskuratuko du asteburuan. Ekainaren 24an hasi eta 26ra bitartean, Haizetara egingo dute, fanfarreen, banden eta kale musikaren nazioarteko lehiaketa. Hamar banda lehiatuko dira 10.000 euroko saria irabazteko; tartean, Bokale Brass Band talde baionarrak. Honez gainera, The Gombo Revolution (Frantzia), Hip Horns Brass Collective (Herrialde Katalanak), La Marmaille post-fanfarre (Frantzia), Brassass (Argentina),

Kamikaze Beat Band (Mexiko), La Tromba (Txile), Steam Brass Band (Espainia) eta Bojan Ristic Brass Band (Serbia) bandak ere arituko dira. Guztira, 40 taldek aurkeztu dute lehiaketan parte hartzeko proposamena.

Lehiaketatik kanpora ere egongo dira emanaldiak. Horrela, Granadako (Espainia) Pisando Fuerte txarangak eta Kantabriako (Espainia) Bizuka perkusio taldeek Zornotzako kaleak girotuko dituzte asteburuan. Haizetara lehiaketaren edizio honetan hiru sari banatuko dituzte. Alde batetik,

bandarik onenak 10.000 euroko saria irabaziko du. Bestalde, instrumentistarik onenaren (1.000 eurokoa) eta publikoaren saria (4.000 eurokoa) banatuko dituzte. Azken hau [www.haizetara.eus](http://www.haizetara.eus) webgunearen bitartez jasoko diren botoen arabera izango da.

Andoni Agirrebeitia alkatea pozik agertu da lehiaketa ohiko formatura bueltatu delako; izan ere, Zornotzan guztiz erroturik dagoen ekimena da, haren usteetan. "Haizetara kaleko musika jaialdi bat baino askoz ere gehiago da zornotzarrentzat", argitu du.

## VII. Kopla txapelketa Abadiñoako Mendiola auzoan egingo dute

Txapelketa zapatuan izango da, hilak 25, 22:30ean hasita; hamar bertsolarik parte hartuko dute bertan

### BERTSOLARITZA • A.M.

Hiru urteko etenaldiaren ondoren, bueltan da Durangaldeko Kopla Txapelketa. Aurten, VII. edizioa egingo dute eta hamar bertsolari aritu dira bertan: Eneko Abasolo 'Abarkas', Ander Aldazabal, Iruri Altzerreka, Janire Arriabalaga, Aitor Bizkarra, Ander Elorriaga, Erika Lagoma, Araitz Katarin, Peru Magdalena eta Bittor Salterain. Ainhoa Urien arituko da gai jartzaile lanetan. "Munduko trikitilaririk onenen" laguntza

edukiko dute, gainera. 22:30ean hasiko da txapelketa, Mendiola frontoian, eta sarrera doakoa izango da. Zazpigarren edizio hau ere Durangaldeko bertso eskolak antolatatu du, oraingoan Mendiola Errekatxo elkartearen laguntza eta konplizidadeagaz.

Bestalde, Euskal Herriko Eskolarteko txapelketa Irantzu Idoatek irabazi zuen. Iurretan egin zen finala, ekainaren 18an. 180 bertsozale batu ziren Kepa Arroitauregi frontoian.



2019ko kopla txapelketa Miren Amurizak irabazi zuen.

## Gai librean

### Akordatzan

Akordatzan naiz hamaika urte genituela T-k bere neba nagusiaren gelan "lesbiana naiz" esan zidanekoaz, baita M eszenatokira bularrak bendatuta igotzen ikusi nuen lehen aldiaz ere. Berri Txarrak-en "Lotsarik Gabe" kantuarekin akordatzan naiz. Akordatzan naiz Bobbi eta Francesekin, eta akordatzan naiz ere P eta bere bikotekideari duela hilabete pare bat Madrilen eman zioten jipoiarekin. Akordatzan naiz beltzez, berdez edota urdinez jantzitako uniformedun horiek ez dutela sekula inor babesten.

Akordatzan naiz "queer", "butch" eta "trans" berbekin. Akordatzan naiz igaroen astean entzun nuela kalean mutiko bat besteri "maricón de mierda" esaten, eta akordatzan naiz 18 urterekin bi lesbiana genituela kuadrillan, eta gay-rik ez zegoela ere akordatzan naiz.



Miren Erdoiza Mujika  
Irakaslea

Akordatu naiz orain, hamar urte geroago, aldatu direla zenbait kontu, eta baita sexuaz gozatzeko zenbait modu ere. Akordatzan naiz I eta M-rekin, eta E-ren Donostiako neska-lagunarekin, eta akordatu naiz egun J-k zakildun bikotekidea daukala. Leslie Feinberg idazleak "Marimutil Baten Bluesa" liburuan eskolako patioan bortxatu zutenekoaz idatzi zuela ere akordatzan naiz.

Akordatzan naiz Xake-k egingandako "Lur" antzezlanarekin, eta barrenak krak egin zidala ere akordatzan naiz. K-k casting batean maskulinoagoa izan behar zuela agindu ziotela kontatu zidanekoaz akordatzan naiz, eta E-k egin zidan errietaz akordatzan naiz, telebistako pertsonaia bati luma asko nabaritzen zitzaioela esan nionean. Ez naiz akordatzan zenbat aldiz entzun dudan "ez esan inori". Akordatu naiz akordatzan naizela oraindik zenbat sekretu ibiliko ote diren hortik zehar bueltaka.

Akordatzan naiz Lotsarik Gabe nik ere maite ditudala T, M, K, E, I, M, E, P, E, Leslie, Bobbi eta Frances. Erreferente direla niretzat, Ikastolako lagunak, militantziako kideak edota telebistako pertsonaia kutunak ditudan hauek guztiak. Beraiek babesten dutela elkar, eta elkarrekin bihurtzen direla aterpe.

Akordatzan naiz badaudela herrian aterpearen eraikuntzan diharduten zenbait pertsona, eta hauei esker ikusi ditudala T, M, E eta beste hainbat lagun Intxaurreko plazan Durangoko Bilgune Feministak (ekainaren 28a dela medio) antolatutako ekimenetan parte hartzen. Irakurri dituztela beraien tripetatik nireak ezandarazi dituzten zenbait testu, eta Bilguneari esker eman zaiela balio politikoa oholtzari, hitzari eta bizitzari. Akordatu zaitez zu, irakurle, ekainaren 30ean plazara hurbiltzarekin, zatoz plaza plazerez betetzera.

# Elorrioko Emakumeen Binakako Sega Sail Txapelketak hainbat mugarri apurtuko du

Emakumeekin bakarrik osaturiko lehenengo txapelketa antolatu du Almitza elkarteak



Luixa Uzkudun, Elorrioko arituko den segalarietarikoa, sega saio batean. ATARIA.EUS

SEGA • JOSEBA DERTEANO

Elorrioko Gazeta auzoan, Emakumeen Binakako Sega Sail Lehiaketa egingo dute domekan, 12:00etan. Txapelketa berezia izango da, hainbat mugarri gaitutuko duelako. Eraitsiko den muga bat lurraldetasunari dagokio. Sega txapelketarik gehienak Gipuzkoan eta Nafarroan egiten dira eta oraingoa Bizkaira ekarri dute. "Lurraldetasunaren ikuspegiari eusten ahalegintzen gara eta betiko eremuetatik zabaldu gura genuen. Gainera, sega kirol minorizatua da eta ahalik eta jenderik gehienarengana hurreratu gura dugu", adierazi du Almitza elkarteak Haizea Arrutik. Txapelketa Almitza elkartearen eta Gazetako Lagunarteko Kofradiaren artean antolatu dute.

Horrez gainera, emakumeak protagonista bakarrik izango dituen lehenengo txapelketa izango da Elorriokoa. "Elkartean inoiz baino emakume gehiago dago, kopurua ia gizonenaren parekoa da eta ikusgarritasuna eman gura diogu horri. Aitortza moduko bat da", dio

Arrutik. Hirugarren nobedade bat da txapelketa binakakoa izango dela. Kasu honetan, modalitate berrietara "zabaltzeko" saiakera bat da.

Guztira, hamabi segalari arituko dira, sei bikotetan banatuta. Honako hauek dira bikoteak: Irati Astondoa-Jugatx Agirre, Izadi Arrospide-Luixa Uzkudun, Susana Lopez-Malou Henriksen, Alaitz Imaz-Graxi Eloseggi, Maide Garmendia-Uxue Iruretagoiena eta Angels Bretó-Ainara Otamendi.

Txapelketa nazioarteko erara lehiatuko dute. Sega Europa erdialdeko hainbat herrialdetan (Alemania, Austria...) egiten den kirola da. Euskal Herrian eta lurralde haietan egiten diren txapelketak desberdinak dira. Hemen, belarrak gehien moztu duenak irabazten du. Nazioarteko probak laburragoak eta esplosiboagoak dira, eta, ebakitako kantitatea barik, beste alderdi batzuk kontuan hartzen dira: belarra ebakitzeko txukuntasuna eta zehaztasuna, besteak beste.



IRATI ASTONDOA  
ZULOAGA

Zeanuri | 1991

**"Txapelketa antolatzea bera garaipen bat da denontzat"**

Aspaldian gehiago dabil aizkoran eta askok handik ezagutuko dute Irati Astondoa, txapelketa garrantzitsuak irabazi dituelako. 2020an eta 2022an Banakako Urrezko Aizkolarien txapela lortu zuen. Baina domekan segan arituko da, etxean umetatik ezagutu eta 15 urte zituenetik jarduten duen kirolean. Bera izango da Bizkaiko ordezkari bakarra Gazetan jokatu den sega txapelketan. Ahalik eta lanik onena egiten ahaleginduko dela dio, baina, batez ere, txapelketa antolatzea bera nabarmendu du.

**Segarako afizioa aitagandik dator kizu?**

Bai. Segan 15 urtegeaz hasi nintzen, Almitza elkartearen, baina betidanik ikusi dut etxean: aita, lehengusuak eta inguruko jende asko segan aritu dira.

**Zerk erakarri zintuen segatik?**

Sega jaialdi batean Miguel Mari Jauregi 'Altzo'-k gonbidatuta parte hartu nuen, lehenengoz. Aita ezagutzen zuen eta horregaitik

gonbidatu ninduen. Han batu zen jendea, sortu zen giroa... asko gustatu zitzaizkidan eta orduan zaletu nintzen.

**Bizkaian ez dago afizio handirik. Hasi nintzenetik ez dut emakumezko beste segalari batez gatzat kointziditu**

**Zeu zara txapelketako bizkaitar bakarra. Hemen ez dago afizio handirik?**

Bizkaian ez dago afizio handirik, ez. Hasi nintzenetik hona ez dut emakumezko beste segalari batez gatzat kointziditu. Seguru ere ezin dut esan, eta baliteke besteren bat egotea, baina erakustaldietan eta txapelketetan neu naiz bakarra, bai.

**Elorrioko txapelketa nazioarteko estiloa izango da. Zure dohaintetara ondo egokitzen den modalitatea da? Modalitate biak asko gustatzen zaizkit eta txapelketa bietan par-**

te hartu dut. Nazioarteko estiloko saioetan gehiagotan aritu naiz, baina esango nuke kilotakoa hobeto datorkidala. Hobe naiz lan luzeetarako laburretarako baino. Esprint hori falta zait. Iraupen luzeagoko lanetan erosoago sentitzen naiz.

**Jugatx Agirre izango duzu bikotekide txapelketan.**

Bai, txanda librean arituko gara. Segalari bakoitzak 300 metro karratu izango ditugu ebakitzeko. Bakoitzak ehun metroko sailak ebakitzean, besteak hartuko du txanda.

**Zer helburu dituzue?**

Bakoitzak bere helburuak izango ditu, baina niretzat, emaitza baino gehiago, txapelketa antolatzea bera da inportanteagoa. Lehenengoz antolatu da tankera honetako emakumeen binakako txapelketa. Orain arte, emakume gutxi egon izan gara prest iraupen luzeoko txapelketak jokatzeko. Ehun metro karratutik gorako txapelketetara ez da emakume

asko apuntatu izan. Sega herri kirol modalitate minoritarioa denez, zailtasun gehiago egon da beti. Baina oraingoa denok batu gara eta berezia izango da. Buruz burukoa barik binakakoa izateak segalari gehiago parte hartzera animatu ditu behar bada. Lehenengoz egingo da hainbeste emakume batzen duen jaialdia. Txapelketa antolatzea bera garaipen bat da denontzat.

**Aizkoran ere aritzen zara eta lorpen garrantzitsuak dituzu: Banakako Urrezko Aizkolarien txapela lortu zenuen 2020an eta 2022an. Aizkoragaz ala segagaz, zegaz aritzen zara gusturago?**

Segalaria nintzelako egiten dut aizkoran. Batak eraman ninduen bestera. Zein dudan gustukoena? Biak gustatzen zaizkit. Gaur egun gehiago dedikatzen naiz aizkorara, ez delako herri kirol minoritario bat. Gaur egun irteera eta txapelketa gehiago dago aizkoran, gehiago mugitzen gara.

**UDAKO MAILEGUAK**  
EKAINAK 13 - IRAILAK 7

Nobedadeak eta beste Biblioteketako materialak izan ezik

Iurreta  
Eizateko Udala  
HENRI BIBLIOTEKA

**GAER DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

# Amaraune elkarteak mendi lasterketa berria antolatu du Berrizen zapatu honetarako

Elizondo plazan hasi eta amaituko da, jaia herrigunera eramateko. Ahalik eta ibilbiderik eramangarriena diseinatu dute

**MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO**

Berrizen mendi lasterketa berria estreinatuko dute zapatuan. Amaraune mendi kirol elkarteak antolatu du eta balorazioa positiboa bada urteroko hitzordu bihurtu gura dute.

Mendi lasterketa Amaraune elkartearen pizkundeari zor zaio. Pandemiaren aurretik herriko eskaladzaileen premiak asetzera bideratuta egon den elkarteari norabide berri eta zabalago bat eman diote azken urtebetean, hainbat herritarren ekimenari eskerrak. Eskaladako sekzioari eutsi eta berriak sortu dituzte; mendirako irteerak antolatzeko taldea, trail-koa... Hasieran lau katu ziren eta gaur egun 70 bat bazkide dituzte. "Lehenengo batzarrean hiru-lau bat ginen, hurrengoan dozena bat, hurrengoan hogeitun... Herrian afizio handia dagoela ikusi dugu", azaldu du Mikel Gonzalez Amarauneko kideak.

Amaraune mendi lasterketa 10:00etan hasiko da, Elizondo plazan, eta leku berean amaituko da. Probak 17 kilometro ditu eta 887 metroko desnibel positiboa. Ibilbideari dagokionez, ahalik eta jenderik gehienarentzat erakar-garri izan dadin ahaleginu dira. "Oso ibilbide tekniko eta desnibel handikoa diseinatuta, ematen du



Ehun bat korrikalarik parte hartuko dute lehenengo edizioan.

asko dabilzanezi mugatuta dagoela eta ez genuen hori gura. Badu bere gogortasuna, baina apur bat dabilenak ondo egiteko modukoa da", azaldu du Gonzalezek. Korrikalariak Oiz magaletik ibiliko dira eta Sarrimendi (604 metro) eta Gaztelumendi (532 metro) gainak igaroko dituzte.

Antolatzaileak pozik daude lehenengo aldi honetako harrera-

gaz. 100 bat lagunek eman dute izena. Herritarren artean ere interesa piztu duen ekimena dela dio Gonzalezek. "Lasterketa nondik den galdetu digu mendizale askok, ibilbidea egin gura zutelako", argitu du.

## Umeentzako jolasak

Goizean zehar umeei begirako lasterketak ere egingo dituzte,

zaletasuna bultzatzeko. Horrez gainera, korrikalari parte hartzaileen artean Berrizko dendentan gastatzeko bonuak zozkatuko dituzte. "Herrigunean mugimendua sortu gura dugu. Berrizen egon izan dira lasterketak, baina goian, Berrizburu inguruan, eta alde horretatik hutsune bat ikusten genuen", adierazi du Gonzalezek.

## Gigantes aldizkariak saskibaloia kanpusa egingo du Durangon, ekainaren 27tik uztailaren 2ra

**SASKIBALOIA • J.D.**

Ekainaren amaieran, Durangoko Landako I kiroldegian, 2005etik 2016ra bitartean jaiotako hurrei zuzendutako Gigantes Basket Lover kanpusa egingo dute. Tabirako Saskibaloia Taldearen eta Gigantes saskibaloia aldizkari espezializatuaren artean antolatu dute.

Zortzi urteko ibilbideagaz eta 19 edizio baino gehiagorez, Gigantes Basket Lover kanpusa estatuko saskibaloiko prestakuntza ekitaldirik garrantzitsuenetariko bat bihurtu da. Kanpus honen helburu nagusia saskibaloia oinarriak ikastea eta jokalarien artean kirolaren balioak transmititzea da.

Jarduera hauek asteleheneetik barikura 9:00etatik 18:00etara eta zapatuetan 9:00etatik 14:00etara egingo dituzte, zati bitan banatuta. Goizak jokalarien banakako oinarriak hobetzera bideratuko dituzte, bai teknikoak bai fisikoak, eta arratsaldeetan talde jokoa izango dute ardatz. Kanpuseko zuzendaria Xabier Chico izango da, Tabirako Baqué taldeko entrenatzailea, eta egoitzaren koordinatzailea Asis Iturbe izango da, Tabirakoko kirol zuzendaria.

## Jokaldia

### Errugbia eta garagardoa

Ez da nire asmoa edari alkoholikoen apologia egitea, ezta gutxiago ere, baina bikote egokia izendatu beharko bagenu, hautagaien artean errugbia eta garagardoa egongo lirakeke.

Ez dago argi noiztik datorren errugbi partidetan zein hirugarren denboran garagardoa edateko ohitura, baina ziu-rrerrenik industrializazioak ekarritako ohitura berriekin izango du lotura. Aldaketa ugari ekarri baitzituen ohituretan zein aisialdia kudeatzeko tartetean. Sasoikoa da ere, gaur eguneko PUBen sorrera, hasiera batean "public house"ak, non zerbait jateaz gain, garagardoa zein ginebra edan zitekeen. Horrekin batera, industrializazioak ere aldaketa nabariak ekarri zituen garagardoa ekoizteko teknikan eta produkzioan, botilaratzen



Gotzon Gomez Barrenetxea  
Errugbia

**Ez dago argi garagardoa partidetan edateko ohitura noizkoa den; ziu-rrerrenik industrializazioaren ohitura berriekin du lotura**

**Zaleentzat ere aitzakia paregabea da, garagardoa hartzeaz gain, aurkarien zaleekin hitz egiteko**

hasi ziren, eta pub delakoak jendea elkartzeko topagune bihurtu ziren.

Errugbiak bereak egin zituen halako ohitura batzuk, hala nola partidaren bukaeran aurkari zein epailearekin garagardo bat hartzeko ohitura, partidaren inguruko bitxikeriak, txarto ulertuak zein ika-mikak partekatzeko zein argitzeko parada; baina batez ere lagunak egiteko abagune paregabea.


Zaleentzat ere aitzakia paregabea izaten da errugbi partida, garagardoa hartzeaz gain, aurkarien zaleekin hitz egiteko, zein askotan beraiekin elkarrekin aritzeko. Ohiko argazkia izaten da partida aurretik zaleak elkarrekin ikustea, eta hori da, nire ustez, garagardoak gure kirolari ematen dion balio erantsia, adiskidetasuna sustatzeko eta solasaldiak izateko aukera paregabea.



# Abadiñoako institutuaren 25. urteurrena







## Botikak

**BARIKUA, 24** · 09:00-09:00

CAMPILLO MONTEVIDEO  
ETORB. 24 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN  
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 25** · 09:00-09:00

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO MONTEVIDEO  
ETORB. 24 - DURANGO

ETXEBARRIA MONTEVIDEO  
ETORB. 2. - DURANGO

UNAMUNZAGA MURUETATORRE  
2C - DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONGO  
22. - DURANGO

GAZTELUMENDI J.A.  
ABASOLO 2 - DURANGO

BALENCIAGA EZKURDI  
PLAZA 8 - DURANGO

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO, ROSA MARI SAN  
PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO  
ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN  
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE  
ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN TXIKI  
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE  
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 26** · 09:00-09:00

ETXEBARRIA MONTEVIDEO  
ETORB. 2. - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 27**  
· 09:00-09:00

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN  
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 28** · 09:00-09:00

DE DIEGO INTXAURRONGO  
22. - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN  
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 29** 09:00-09:00

SAGASTIZABAL ASKATASUN  
ETORB. 19 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN  
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 30** · 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN  
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



### GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Kata!** Egun eder bat pasetie espero dogu. Dana merezi dozu, rubial! Pilo bat maite zaittugu, gora abuztuaren 15a maite dugunon komandoa! Zure kuadrillako tiabuenak.

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 17° / 13° ☁

ASTELEHENA ↓ 17° / 12° ☁

EGUAZTENA ↓ 28° / 13° ☁

DOMEKA ↓ 16° / 12° ☁

MARTITZENA ↓ 25° / 11° ☁

EGUENA ↓ 22° / 15° ☁

Eskelak jartzeko: 946 816 558  
edo [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

### Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

# DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko  
Baserritarren  
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

## “Asko daramat Iurretako anbulatoriotik, eta zer esanik ez lankideengandik”

Iurretako anbulatorioa zabaldu zutenetik, erizain-laguntzaile aritu da Angela Hernandez, 34 urtez. Azken aste hauek pazienteetaz agurtzeko aprobetxatu ditu erretiroa hartuko du eta



**Angela Hernandez Garcia**  
Iurretako anbulategian erizain laguntzailea  
GURUTZETA | 1960

### IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako anbulatorioiko lehenengo mediku eta erizain talde hartako azkena da Angeles Hernandez. 1988an hasi zen bertan lanean, erizain-laguntzaile, Durangoko anbulatorioan hiru urte egin eta gero. "Iurretarrak nigaz eramango ditut beti", dio Gurutzeta-koak.

### Iurretako anbulatorioa uzteko ordua heldu da. Zelan daramazu?

Beti esan dut Iurretako anbulatorioa nire bigarren etxea dela. Bada, aurkako sentimenduak sortzen zaizkit. Pozik nago etapa berri bat hasi behar dudalako, gogotsu

eta plan askogaz, baina pena ere badut. Asko daramat Iurretako anbulatoriotik, eta zer esanik ez izan ditudan lankideengandik. Bigarren familia bat dut Iurretan. Beti hartu-eman mantendu dugu lanera beste nonbaitera joan direnekin, edo jubilatuta direnekin, eta nik ere mantenduko dut. Paziente asko agurtzen nabil, betidanik ezagutzen ditudanak, batez ere. Dagoeneko ez dauden paziente horietaz ere gogoratu naiz.

**Lehenengo talde hartako azkena zara.** Bai, gaztea nintzela hasi nintzen! Denak jubilatuz joan dira.

**Aldatu egin da lan egiteko modua?**

**Pozik nago etapa berri bat hasi behar dudalako, gogotsu eta plan askogaz, baina pena ere badut**

Erizain gutxi izan da beti Iurretan, eta haiei laguntzea izan da nire lana. Nire profilak onarturiko lanak hartzen joan naiz urteotan eta ez dut sentitu lana asko aldatu denik. Gainera, denok elkarlanean jardun izan dugu beti. Talde kontzeptu hori inon existitu bada, Iurretan izan da.

### Lehen arreta denon ahotan dago azkenaldian. Behar den moduan zaintzen dela uste duzu?

Ez, eta epaitu egiten gaituzte, gainera. Egia ez diren gauzak entzuten dira etengabe politikarien ahotik, eta herritarrek mezu horiek sinisten dituzte. Prestigioa galdu dugu. Lehen arreta pikutara botatzen dabilta. Hor ikusi dut aldatarik handiena, berehala dena aldatu da, orain dela urte batzuk baloratuagoak ginen. Orokorrean, komentario asko entzuten da kalean. Lehen arretako zentroak lehenengo osasun hartu-eman dira, eta ezinhobea da hori. Estimatu hartu-emanak sortzen dira, oso gertukoak. Paziente asko ez dator medikuarengana, terapia egitera baino. Lehen arretako medikuak oso maitatuak dira. Hau guzti hau lehen arreta osora estrapolatu daiteke.

**Lehen arretan estimatu hartu-emanak sortzen dira, oso gertukoak. Lehen arretako medikuak oso maitatuak dira**

### Hainbeste urteren ondoren, pazienteei maitasuna hartzen zaie?

Bai, handia. Agurtu naizenean, batzuek besarkatu egin naute. Denbora da hainbeste besarkada jaso ez dudala.

### Zeren falta igarriko duzu gehien?

Lankideekin egunero izan dudan hartu-emanaren falta, partekatutako momentu intentsoen falta. Kafea hartzeko tartean, dena partekatzen dugu, hezur eta mami gara. Eta herritarren esker onaren falta ere igarriko dut.

### Zer egingo duzu orain?

Musika asko gustatzen zait eta baliteke pandemiagaz etendako piano eskolak berreskuratzea. Areto-dantzak ikastea ere pentsatu dut, dantzagaz frustrazio txiki bat ere badut eta. Bestetik, bizitzagaz aurrera egitea. Barakaldoko Zigor abesbatzako kide ere bannaiz, eta irailean itsas-bidaia bat ere egingo dut haiekin. Jubilazio oparia izango da.

### Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren  
Irakaslea / Jubilatua



### Nora goaz?

Aurreko egun baten egunkaria irakurtzen nengoela bertan azaltzen zen berri batek guztiz minduta utzi ninduen: Pariseko kale baten artista frantses bat lurrera erori eta bertan inork lagundu gabe zortzi ordu inguru egon ondoren hotzez hil zen. Jendea nora begira zegoen? Paris bezalako hiri erraldoi baten hainbeste pertsona ondotik igaro eta bat ere ez zen hurbildu zer gertatzen zitzaion galdetzerat!

Nolako gizartean bizi gara? Norberaren buruarekin baino arduratzen ez dena? Zelako edukazioa ari gara erakusten gure seme-alabei? Orain neu, eta gero ere neu eta besteak hor konpon!

Non dago besteenganako enpatia? Zer uste dugu, akaso besteen laguntzarik gabe bizi izateko gai garela?

Gero animalia arrazionalak garela diogu, baina inguruan ditugun lau hankako animaliak gu baino askoz ere arrazionalagoak dira, guztiz fidelak baitira.

Gero eta teknologia aurreratuagoak urruti daudenak hurbiltzeko eta hurbilekoengandik urruntzeko.

Askotan ingurukoak ere ia ez ditugu ezagutzen ondotik pasatzen garenean, begiak pantailari josita gabiltzalako. Gero eta gehiago kostatzen zaigu "agur" edo "zelan zaude" esatea.

Zein urruti geratzen diren gure etxeetako ateak parez pare zabalik zeudeneko egunak eta auzokidea familiako beste kide bat zeneko egunak.

Jo dezagun frenazo bortitz bat eta har dezagun momentu bat gogoeta egiteko, egoera honi 360ºtako bira bat emateko; bestela, gizarte moduan amildetarik behera goaz.



Gure aukerak,  
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!